

HUELGA FEMINISTA GENERAL
GRÈVE FÉMINISTE GÉNÉRALE

GREBA FEMINISTA OROKORRA

AZAROA NOVIEMBRE NOVEMBRE



Zaintza eskubide kolektiboaren alde.
A favor de un derecho colectivo al cuidado.
En faveur du droit collectif au soin et à l'accompagnement.

Mugimendu feministak grebara deitu du zaintza eskubide kolektiboaren alde

AZAROAREN 30EAN BATU GREBA FEMINISTA OROKORRERA!

Zaintza bizimodu duina eraikitzeke oinarria da; bizitzako une eta eremu guztietan beharrezkoa. Azaroaren 30ean bizitza duinen alde irtengo gara kalera, guztion bizitza duinen alde.



Bilera informatiboek interesa sortu dute

DENON BIZITZAK ERDIGUNEAN-OÑATI

Pertsona guztiok bizitzan zehar zaintza jaso eta ematen dugu, izaki interdependentek garen heinean, elkarren beharra dugulako, zainduak izateko beharra. Bestalde, ekodependenteak ere bagara, naturaren parte, eta, beraz, naturaren ziklo, erritmo eta aberastasunen mende gaude. Egungo sistemak, ordea, ez ditu bi ezaugarri horiek kontuan hartzen.

Gaur egungo egitura sostengaezina dela argi dago, biztanleriaren gehiengoarentzat gero eta zailagoa baita bizimodu duin bat aurrera eramatea: zerbitzuen pribatizazioa, lanen prekarizazioa, genero-erolek gizartean duten eragina, migrazio politikak, etxebizitza lortzeko zailtasunak... Sistema arrazista, kolonialista, heteropatriarkal eta kapitalista hori salatu eta aldatzera gatoz, sistema horrek ez baititu bizitzak erdigunean jartzen, kapitala baizik.

Greba orokor feminista hau aldaketarako inflexio puntu izan dadin nahi dugu, eta zaintzen egungo antolamendu soziala aldatu. Hainbat dira ditugun aldarriak:

Zaintza-lanak kolektibizatzea. Zaintza-sistema publikoaren alde egitea.

- Zaintza duinen unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzea eta bermatzea.
- Zaintza zerbitzuen pribatizazioarekin amaitzea, eta zaintza sistema publikoa indartu eta garatzea.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzua indartu eta garatzea.
- Familia nuklearretik at, zaintzeko baimenak zabaltzea eta handitzea: loturagramak.
- Zaintza-lanak transbersalki lantzea: hezkuntzan, osasungintzan eta lan eremuan, besteak beste.

Beste zaintza-kultura bat eraikitzea. Bizitza duinen alde egitea.

- Atzeritartasun legea bertan behera uztea, eta bitartean, zaintza langile guztiak erregularizatzea.
- Erroldatzeko eskubidea guztiontzat eskuragarri izatea.
- Zaintzeko denborak bermatzea: lanaldia murriztu soldata murriztu gabe.
- Gizonek zaintza lanetan ardura hartzea.
- Denontzako pentsio duinak ezartzea: 1080 eurokoak gutxienez.
- Agroekologia babestea eta sustatzea.
- Etxebizitza eskubidea bermatzea: merkatuan esku hartzea.

Zaintza-lanaren balioa handitzea eta profesionalizatzea. Zaintza-langileen baldintza duinen alde egitea.

- Etxeko langile egoiliarren erregimena desagerraraztea.
- Etxeko langileak lan-erregimen orokorrean sartzea.
- Zaintza sektoreko langileen lan-baldintzak hobetzea.
- Etxeko langileei gutxienezko soldatetik gorako lansaria ezartzea.
- Zaintzaileei laguntzeko sareak sortzea.

Hamaika dira grebara batzeko arrazoiak, eta handia da egiteko dugun lana, baina bizitzak erdigunean jarriko dituen sistema bat posible dela seguru gaude! Hasi etxeak, lagunarteak, kaleak zein lantokiak mugitzen eta batu grebara!

Greba Eguna Oñatin

Greba eguneko egitaraua zehazten gabiltza, baina mobilizazio nagusia 18:30etan plazan izango da. Horretaz gain, herritarrok dituzuen aldarriak etxe eta lantokietako balkoietan zein leihoetan zintzilikatzeko deia egiten dugu Denon Bizitzak Erdigunean Oñatiko lantaldetik.

Zure ustez zergatik da garrantzitsua greba hau?

TUMENNA SALEH SAID

Raboub Jatri Mohamed, Raboub Khatri Said, Umelfadli Mohamed Ali, Tumenna Saleh Said eta Enguia Lahasen

"Gure helburuak soilik grebaren bitartez lortu daitezkeela ulertzen dugu. Uste dut, herritarren eskubideak aldarrikatzeko garrantzitsua dela mobilizatzea; batez ere, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunekin amaitzeko, esaterako, etxeko lanen banaketa desorekatuarekin. Etxeko langileen eskubideak defendatuko ditugu, gehiengoa emakumeak direla kontuan izanik. Eskubideen urraketekin amaitzeko grebara goaz.



NORONE BIZKARRA LARREA



"Pertsona guztiok bizitza osoan zehar zaintzeko eta zainduak izateko dugun konpromisoaz eta askatasunaz ari gara. Borroka hau denon ardura izan behar delako Greba Feminista Orokorra garrantzitsua izango da. Azaroaren 30ean kaleak hartzea beharrezkoa izango da eta data hori hasiera besterik ez da izango.

M. ASUN ZELAIA ZUMELAGA



"Egungo sistemak ez du balio: ezin da zaintzaren ardura emakumeen eta familien, norberaren egoera ekonomikoaren, edota zaintza langileen baldintza prekarizatuen ardurapean utzi. Eta onartezina da, zaintza merkantilizatuz, gutxi batzuen negozio bilakatzea ere. Zaintza pertsona guztien oinarrizko eskubidea baita. Unibertsala, kalitatezkoa, publikoa eta zaintzaileen eta zainduen eskubideak errespetatuko dituen beharko du izan. Administrazioari kalitatezko zerbitzuak eta baliabide gehiago eskatzeko garaia da. Zaintza lanak bizitza osoan zehar baitira beharrezkoak. Zahartzaroan, gainera, handitu egiten dira behar horiek. Horretarako, greba feminista orokorra zaintza sistema publikorantz urratsak emateko aukera paregabea da.



DENON BIZITZAK ERDIGUNEAN-OÑATI

PLATAFORMAKO KOORDINAZIO TALDEKO KIDEA

Aran Sagarzazu Sacristan, Irati Garai Aldekoa, Nahia Barrena Arregi, Oneka Anduaga Garai eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza

"Oñatiko koordinazio lantaldeetik uste dugu greba honen gaiak guztioi eragiten digula, beraz, ardura eta erantzunkizuna denona dela. Ezinbestekoa da nork bere lekutik eta dituen baliabideekin parte aktibo izatea. Azaroaren 30a, greba eguna, etorkizunerako pausu eta aldaketetarako abiapuntua izango da. Oñatin ere badago nahikoa arrazoi eta potentzial zaintzaileen errekonozimendua eta lan baldintza duinak bermatuko dituen zaintza-sistema publiko-komunitario baterako, eta bizitza dueinen aldeko zaintza-kultura baten alde egiteko.

Nola antolatuko gara?

Grebara begirako lantaldea martxan dago jada. Lanak banatze aldera, azpitaldetan antolatu gara eta koordinazio bilerak asteartetan 18:30etan egiten ditugu Antixenako Gaztetxean. Lantaldeak honako hauek dira: komunikazioa, A30 Greba Eguna, enplegua eta zaintza lan ez ordainduak.

Lantalderen batean parte hartzea nahi izanez gero, asteartetako bilerara hurbildu zaitezke edota ondorengo helbidera idatzi dezakezu eta nahi duzun lantaldera bideratuko zaitugu: bizitzakerdiguneanonati@gmail.com

Gizonok ere hausnarketarako espazioa sortu dugu

Guztiok dugu zainduak izateko beharra, guztiok baikara zaugarriak eta interdependentek. Horregatik, zaintzeko ardura ere guztiona da. Mugimendu feministak hilabeteak daramatza greba hau lantzen, eta urteak zaintzaren auziaz hitz egiten. Gizonoi ere iritsi zaigu greba eta zaintzaren auzia lantzen hasteko ordua.

Batzuk jada hasi gara batzen: astelehenetan 19:00etan Antixenako Gaztetxean elkartzen gara. Informazio gehiago nahi izanez gero, idatzi ondorengo emailera: bizitzakerdiguneanonati@gmail.com

Badator negua, argindar eta gas fakturak berraztertzea komeni da

Udalaren **Energia Bulegoa** gure etxeko gas eta argindar kontratuak aztertu eta fakturen inguruko zalantzak argitzeko aukera dugu

BIDEBARRIETA KALEKO 24 ZENBAKIAN DAGO UDALAREN ENERGIA BULEGOA

Informazio gardentasuna. Horixe da Udalak iazko urrian aurkeztu zuen Energia Planak barnebiltzen dituen zortzi helburuetako bat. Alegia, energiaren merkatu konplexu eta ulergaitzaren aurrean herritarrei informazio gardena eta argia ematea. Eta helburu horrekin jarri zuen martxan iragan martxoan Energia Bulegoa. Zerbitzu honen helburu nagusietako bat da herritarrek argindar eta gas fakturen inguruan izan ditzaketan zalantzak argitzea, eta merkatuan dauden kontratu mota ezberdinen inguruan informatzea eta aholkatzea. Beraz, kontuan hartuta neguan gora egiten dutela argindar eta gas kontsumoek, une egokia izan daiteke Energia Bulegotik bueltatxo bat emateko, aurrez txanda hartuta.

Negua badatorrela kontuan hartuta, momentu egokia izan daiteke gure gas eta argindar kontratuak berrikusteko, ezta?

Bai, duda barik. Neguan gora egiten du gas eta argindar kontsumoak, eta komeni da jakitea zer ordaintzen ari garen eta zergatik. Tamalez, badakigu energiaren merkatua oso konplexua dela, ulertzen zaila dela, eta, askotan, herritarrek ez du jakiten zer ari den ordaintzen. Hilabete hauetan ikusi dugu herritar asko faktura oso handiak or-

daintzen ari direla eta, beraz, merezi du, bai fakturak eta kontratuak berraztertzea, eta horretarako gaude gu, herritarrei laguntzeko, zalantzak argitzeko, eta kontratu mota ezberdinen inguruan informazio eta aholkularitza pertsonalizatua emateko.

Zer egin dezakegu argindar eta gas fakturak arintzeko?

Lehenengo eta behin ikusi behar da zer kontratu mota daukan: merkatu librekoa ala merkatu arautu edo erregulatukoa. Gasari dagokionez,



Alaia Alvaro, Oñatiko udalaren Energia Bulegoko teknikaria

"Ikusten ari gara herritar asko faktura oso handiak ordaintzen ari direla"

EGUR-LAN
AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

adibidez, momentu honetan merkatu librean daudenak bi eta hiru aldiz gehiago ordaintzen ari dira, merkatu arautuan baino. Gogoratu behar da, merkatu arautuan gobernuak mugatzen duela prezioa hiru hilean behin. Merkatu librean aldiz, enpresek finkatzen dute prezioa eta, momentu honetan preziorik lehiakorrenak merkatu arautuan daude.

Guk bezeroa ordaintzen ari den tarifa aztertzen dugu, eta prezio altu bat ordaintzen ari dela ikusten badugu, merkatu arautura bideratzen dugu.

Gainera, kasu batzuetan herritarrak mantenu kontratuak eta bestelako kontzeptu batzuk jakin barik ordaintzen ari dira eta komeniko litzateke horiek horiek errebisatzea.

Argindarrari dagokionez ere merkatu arautura pasatzea gomendatzen dugu, baina, kasu honetan, aurreztu nahi baldin badugu, funtsezkoa da kontsumo ordu merkeetan edo asteburuko ordu merkeetan egitea.

Kontratatuta daukagun potentzia ere garrantzitsua da, ezta ?

Bai, jakina. Kontratutako potentzia egokia den ala ez ikusi behar dugu. Horretarako, bezeroaren potentzia



ENERGIA BULEGOA herritarren zerbitzura

Bidebarrieta kaleko 24an dago Energia Bulegoa (Oñargi eta Onaro konpainien egoitza berean).

Orduetgia:

Astelehenetik ostegunera 9:00-14:00 / 15:00-17:45
Ostiraletan 9:00-14:45

Aurrez txanda hartzea komeni da, telefonoz edo emailaz:
Tel. 943 71 64 03 / energia.bulegoa@onati.eus

erabilera maximoak ikusten ditugu, eta horrek esaten digu kontratatuta duen kilowatio kopurua benetan behar duen ala ez, eta horrek ere eragina du fakturan, noski.

Ilido horretan, interesgarria eta lagungarria da *Datadis* izeneko plataforma (<https://>

[datadis.es](https://)). Doako plataforma bat da eta bertan ikus dezakegu guk kontsumitzen dugun argindarrari buruzko informazioa, edozein delarik ere gure konpainia. Eguneko, asteko, hileko edota urteko datuak ikus ditzakegu.

Zer da Bonu Soziala?

Argindar fakturari ezartzen zaaien deskontu edo beherapen bat da. Kolektibo ezberdinek eskura dezakete bonua: errenta baxua (<16.800€) dutenek, pentsio minimoa jasotzen dutenek, familia ugariak, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradunek, eta baldintza bereziak dituztenek (%33tik gorako desgaitasuna, genero/terrorismo biktinak, 2. edo 3. graduko mendekotasuna dutenak, eta gurasobakarrak).

Bonu soziala eskuratu ahal izateko merkatu arautuan egon behar da, eta %40-60-80 arteko beherapena lor daiteke, kasuen arabera.

Zer esango zenieke herritarrei?

Laguntzeko gaudela hemen eta etor daitezela lasai asko Energia Bulegora. Gas edo argindar fakturen inguruan zalantzaren bat baldin badaukate etor daitezela eta hemen argituko dizkiegu. Berdin da zein konpainiarekin duten kontratua. Zenbat ordaintzen ari diren aztertuko dugu eta aholkularitza pertsonalizatua eskainiko diogu.

Ez da derrigorrezkoa, baina bulegora etorri aurretik hobe da txanda hartzea. ■



Gualbi

asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com



Kale Zaharreko 43an egon zen Castillo taberna, 1957 eta 1980 artean.
(Argazkia: Jesus Beitia)

▼ Kastillorena izenez ezaguna den etxea berreraikitzen ari dira Kale Zaharrean

Auzoko eta, aldi berean, pasoko taberna izan zen **BAR CASTILLO**



Auzotarrak eta inguruko lantegi eta tailerretako langileak ziren ohiko bezeroak

Kastillorena izenez ezagutzen den eraikina berritzen ari dira Kale Zaharrean, eta aitortu behar dugu nostalgia edo oroimin puntu bat eragin digula Castillo taberna egon zen etxea eraitsita ikusteak. Guk ozta-ozta ezagutu genuen taberna hura, baina XX. gizaldiko bigarren erdian elkargune garrantzitsua izan zen inguruko bizilagunentzat eta Kale Zaharretik behera zeuden tailer eta lantegietako behargin askorentzat ere. Horregatik, Castillo taberna izan zenaren historia jaso nahi izan dugu, bertako seme Jesus Beitiaren laguntzarekin.

Maria Luisa Olalde eta Jose Beitia senar-emazteek ireki zuten Castillo taberna 1957an, Kale Zaharreko 43an, Josek anaia Juanitorekin zeukan aroztegiaren zati bat egokituta. Sortzez *Kastillokoa* baserrikoak ziren Beitia anaiak, eta hortik tabernaren izena.

Tabernako barra, mahai, aulki eta gainerako altzari guztiak anaia biek zuten aroztegiko

beste lokalean prestatu zituzten.

Esan dugu M^a Luisa eta Jose senar-emazteek zabaldu zutela taberna, baina, egiari zor, emazteak —Mariluk— eraman zuten tabernaren ardura, senarrak Argentinara joan behar izan baitzuen, familiako etxalde bateko kargu egitera, eta horretan jardun zuen 1970ean hil zen arte, 46 urterekin.

PASOKO TABERNA

Auzoko taberna izan zen Castillo, baina baita pasokoa ere, Kale Zaharrea eta handik behera zeuden lantegi eta tailer ugarietako beharginak ohiko bezeroak izaten baitziren. Han inguruan zeuden Carretillas Madinazkoitia, Erle Garajea eta Parasoles Perosterena; eta urrutira gabe zeuden Plantxa fabrika, Barrenzelai zerrategia, Tximist pila fabrika, Txintxurreta tutu-fabrika, Fundizioa, Loyola Txokolateak eta Garay, besteak beste.

"Amak goizeko 9etan zabaldu ohi zuen taberna", gogoratzen du Jesusek. "Aurreneko bezeroak hamarretakoa egitera etortzen ziren, nor bere bokadiloarekin, eta ardoa edo, tarteka, kafea eskatzen zuten".

Ondoren taberna itxi eta eguerdirako pintxoak prestatzen hasten zen Marilu: patata tortilla handi bat, kroketak, albardatutako mingaina, antxoak, muturrak, piper berdeak... eta hain estimatuak ziren entsalada-tomate pintxoak. "Ogiaren gainean patata eta tomate xerra bana jartzen zituen, saltsa berezi batean goxatu ostean, dena tipula eta piper xehatuarekin estalia. Batek baino gehiagok esan izan digu Kastillorean ikasi zutela tomatea entsaladan jaten", gogoratzen du Jesusek.

Eguerdian, 12:00ak jo orduko, ohiko bezeroak agertzen ziren berriz ere, bazkalaurrean, etxera bidean. "Gogoan dut, bereziki, Garayrean lan egiten zuten araoztar ugari etortzen zirela, ardo eta pintxo batzuk jatera, lantegiko jantokira bueltatu aurretik", dio Jesusek. Bazkalondoan, 13:15etik 14:00etara, kafea hartu ohi zuen jendeak, gehienek kopa eta puruarekin batera.

Urtebetetze-ospakizunak ere maiz egiten ziren Kastillorean; Garayreko bulegariak, esaterako, bertan elkartzeko ohitura zuten euren ospakizunetarako.

Arratsaldeko 18:00etatik aurrera taberna 'auzotarrentzat'



Castillo tabernaren barrualdea.
(Argazkia: Jesus Beitia)

"Kale Zaharrea eta handik behera zeuden lantegi eta tailerretako beharginak ohiko bezeroak izaten ziren Castillo tabernan"

JESUS BEITIA
Castillo tabernako semea

izaten zen. Periodikoa irakurri, kartetan jokatu edo, beste barriketetan egitera joaten ziren lagun taldeak. Batzuk afari-merienda ere egiten zuten eta hauentzako beti zeukan prest kazuelatxoren bat Mariluk. Kuadrillentzat prestatu ohi zituen afariak ere —entsalada, tripakiak, bakailaoa, ehizakiak...— gogoan ditu Jesusek; "askok kantuan amaitzen zuten (*Salí de Jamaica, Un inglés vino a Bilbao, Caminito, Marino soy, Yo tuve un gran amor en la Coruña, El vino que vende Asunción...*) eta sekulako giroa sortzen zen. Kantuan egiten ez zutenak kartetan aritzen ziren, musean edo tutean, batez ere", oroitzen du Jesusek.

Astegunetan gaueko 22:00ak aldera ixten zen taberna, eta arratsaldeko 19:00etatik aurrera zerbitzari baten laguntza izaten zuen Mariluk; Nieves Biainena aurrena, Angelita Azurmendirena gero. Senarra zendu zenean Argentinara joan behar izan zuen Mariluk 6 hilabeterako, eta tarte horretan Loreti Zubia koinata egin zen tabernako kargu.

AURRENEKO TELEBISTAK

Asteburuetan auzoko jendeaz gain herriko beste gazte batzuk ere joaten ziren Kastillorera, "herri gunetik aldentuta egoteak ematen zuen libertateaz baliatuz, lehenengo ardoak edatera eta

zigarroak erretzera, futbolinean edo kartetan jokatzen zuten bitartean", dio Jesusek.

Koskortu ahala, Jesus bera eta Angel anaia ere hasi ziren, poliki-poliki, amari laguntzen puntako orduetan. "Gogoan dut ardo botila esku biek hartuta zerbitzatzen genituela txikitoak".

Hasieran irrati bat zegoen tabernan, musika eta notiziak entzuteko. Artean ez zegoen telebistarik. Hala ere, berrikuntzei adi, Mariluk berandu gabe ipini zuen telebista, eta sekulako ikusmina sortzen zuten bizikleta karrerek, zezenketek, boxeo emanaldiek (Urtain, Carrasco, Cassius Clay...) eta telesail amerikarrek (Rin-Tin-Tin, El Virginiano...), Chicho Ibañezen 'Historias para no dormir' ahaztu gabe, jakina. Disko-jogailua ere orduantxe ipini zuen Mariluk, eta koloreko telebista jartzen herriko bigarren taberna izan omen zen, Txaketuaren ondoren.

Poliki-poliki, baina, inguruko tailer eta lantegi batzuk ixten joan ziren, eta beste batzuk lekualdatu egin ziren, herri-gunetik kanporago, eta horrek pasoko bezeria gutxitzea ekarri zuen. Elkarte edo soziedadeen sorrerak ere ez zuen lagundu, eta arrazoi bategatik edo bestegatik, edo biengatik, 1980an itxi zuten Castillo taberna. Ordurako, Mariluk joko-aretoa zeukan martxan Kale Zaharreko 52an. ■



(Argk.: Roberto Irigoien)

Txondorra ikasbide

Txondorra egiteko proiektua jarri du abian herritar talde batek, garai batean Oñatin oso errotua egon zen **ikazkintza**ren inguruko ezagutzak landu, elkarbanatu, ikasi eta iraunarazteko.

Ikazkintzak garrantzia handia izan zuen Oñatin denbora luzez. Gure herrian baso ugari zegoenez, bertatik ateratzen zuten burdingintzan ziharduten lantegiek (olak, sutegiak, errementariak...) behar zuten erregaia (egur-ikatz) egiteko egurra (pago-egurra, batez ere), eta, horretarako, ikatz-premia horri erantzuteko, ohikoa izaten zen txondorra egitea, eta ikazkin lanbideak —eta honekin lotutako baso-mutil eta karretero bezalako beste ofizio batzuk ere— bizirik iraun zuten orain dela 60-70 urtera arte.

Gerora ere egin izan dira txondorrak Oñatin, erakusketa moduan; adibidez, 1989ko Kilometroak jaiaren inguruan

Asentzión egin zena, edota 1995ean Araozko Txapelena baserrikoek egin zutena (goiko argazkietan), Oñatin sutu den azken txondorra, guk dakigula.

Tamalez, gero eta gutxiago dira gure artean ikazkin ofizioa eta txondorgintza bizi eta ezagutu zuten herritarrak, eta ezagutza hori behin betiko galdu aurretik, txondorra egiteko proiektua jarri du abian herritar talde batek. Txondorra prestatu ez ezik, sutu ere egingo dute, egur-ikatz ateratzeko asmoz, baina ez da hori helburu nagusi edo bakarra izango. Haratago joan nahi dute, eta txondorra egiteko prozesu osoa baliatu nahi dute ikazkintzaren inguruko ezagutza landu,

elkarbanatu, ikasi eta iraunarazteko. "Ikazkintzak herriko ekonomian eta ingurunean izan zuen eragina aztertu nahi dugu; nola kudeatzen zituzten basoak eta herri lurak, nola ustiatzen zituzten pagadiak, zein ziren energia iturriak, nola antolatzen ziren orduko giza taldeak, ikazkintza eta burdingintzaren inguruan zeuden lanbide edo jarduera osagarriak, ikatzaren erabilera, garraioa, antzinako ezagutzaren transmisioa, sinesmenak... Horren guztiaren inguruko lanketa egin nahi dugu", adierazi digute ekimenaren sustatzaileek. Haratago joateko gogoia ere adierazi digu taldekideetako batek, eta txondorraren



▲ Xabi Elorza, Aitor Galdos, Arantzazu Sagarzazu, Unai Bikuña eta Eñrike Uriarte, txondorra egiteko proiektua abian jarri duen lantaldea (Jon Agirre eta Jon Aiestui falta dira). Taldea irekia da, egitasmoan parte hartu nahi duten herritar guztientzat.

Ezkerreko orrian, Araozko Txapelena baserrikoek 1995ean Ugastegi eta Degurixa artean egindako txondorraren irudiak.

inguruan gaur egun ekonomia txiki bat sortzeko aukerarik ote dagoen aztertu nahi luke. Bilorian (Nafarroa) ba omen da ikatza egiten duenik erretegi, sagardotegi eta partikularrei saltzeko.

DATORREN URTEKO UDAN

Hurrengo urteko ekaina-uztaila aldera egin asmo dute txondorra Oñatin, baina aurtengo abenduan hasiko da prozesua, egur mozketarekin. Udalarekin adostutako herribasoren batetik aterako dute txondorra egiteko pago-egurra. Ekimenaren sustatzaileen asmoa da egurra moztu, garraiatu, zatitu, txondorra egin, sutu eta ikatza atera arteko prozesu osoa grabatu eta dokumentatzea, ondoren ikus-entzunezko bat sortzeko. Gainera, prozesuak dirauen bitartean, hitzaldi, tailer, erakusketa, ikastaro eta irteera ezberdinak antolatzeke asmoa dute, hala nola, pago-mozketari buruzko ikastaroa, edo ikazkintzan erabiltzen ziren erreminten erakusketa.

Txondorra egiteko 30 bat tona egur erabiltzeko asmoa dute, eta horrekin 7 bat tona ikatz aterako da, dena ondo bidean. Oraindik ez dute erabaki zer egingo duten ikatz horrekin.

Asmoa da, txondorra San Martingo zuhaitzian egitea, ermitaren eta errekaen arteko eremuan (Udalaren baimenaren zain daude oraindik).

"Toki egokia iruditzen zaigu, haize-babesean dagoelako, egurra garraiatzeko eroso delako, eta herri gunetik hurbil dagoenez, herritarrak bertara gerturatu ahal izango direlako txondorra egiteko prozesua bertatik bertara ikusteko", azaldu digute. Txondorraz gain, ikazkinaren txabola edo kamaina ere egokituko dute.

PARTE HARTZEKO GONBITEA


Abian da, beraz, txondorra egiteko prozesua. Oraingoz prozesua sustatuko duen lantaldea eratu da, baina garbi utzi nahi dute taldea irekia dela eta ongi-etorriak izango direla proiektuan parte hartu nahi duten herritar guztiak. "Txondorra bera prestatzeko nahikoa dira dozena erdi lagun, baina, ondoren, eguneko 24 orduetan zaindu behar izaten da, egurra egosi bitartean, eta horretarako jendea beharko da, eta baita egurra garraiatzeko edota txondorra estaltzeko behar izaten den orbela batzeko, besteak beste. Momentu bakoitzean beharrezko araberako deialdiak egingo ditugu, baina atek zabalik daude egitasmo honetan parte hartu nahi duten herritarrentzat, eta biziki eskertuko dugu ikazkintza edo txondorgintza zuzenean edo zeharka ezagutu duten herritarrak gurekin harremanetan jartzea". ■

► 30 BAT TONA PAGO-EGUR ERABILIKO DUTE TXONDORRA EGITEKO, ETA, DENA ONDO BIDEAN, 7 BAT TONA IKATZ ATERAKO DUTE

► DATORREN URTEKO EKAINA-UZTAILA ALDERA EGINGO DUTE TXONDORRA, BAINA PROZESUA ABENDUAN HASIKO DA, EGUR MOZKETAREKIN

► TXONDORRA SAN MARTIN ZUHAITZIAN EGIN ASMO DUTE —BAIMENAREN ZAIN DAUDE—, HERRITARRAK HURRERATU ETA PROZESUA BERTATIK BERTARA JARRAITU AHAL IZAN DEZATEN

► TALDE SUSTATZAILEA ERATU DA, BAINA PROZESUAN ZEHAR LAGUNTZA BEHAR IZANGO DUTE EGURRA GARRAIATU, ORBELA BATU EDOTA EGURRAREN EGOSTE PROZESUA ZAINTEKO, BESTEAK BESTE. BERAZ, DEIALDIK EGINGO DITUZTE MOMENTUKO BEHARREN ARABERA



"Gai batean edo bestean euskal wikipedia elikatzea eta, modu horretan, euskarari laguntzea da kontua"

JOSE ANGEL URKIAK

Lantegian erretiroa hartu ondoren *Twitter*-en idazteari ekin zion Jose Angel Urkiak, etxekoei entzundako istorioak eta natura edo euskararekin lotutako hainbat bitxikeria eta jakingarri partekatuz, besteak beste.

Baina orain dela bi urte Pake Lekun antolatu zuten Wikipedia tailerrean parte hartzeko gonbitea jaso zuen, eta harrezkero buru belarri dabil euskarazko entziklopedia irekia elikatuz eten barrik. Bi urteren buruan 1.200 bat sarrera argitaratu ditu; eguneko bi, kasik. "Ia neuretako bakarrik eduki nuen maisua —Iñazio Irizar—, eta eskertzeko modurik onena artikulua idaztea zela esan zidanez, horretan dihardut, ahal dudan neurrian", dio Jose Angelek.

Artikulu gehienak, 1.000tik gora, perretxikoei buruzkoak dira, Urkiak ongi menderatzen duen arloa. "28 urte nituenetik gustatu izan zait mundu hori. Plazan egiten ziren lehiaketak antolatzen ibiltzen ginen, eta hantxe zaletu nintzen. Liburu onak erosi nituen, eta horietan

Perretxikoei buruzko milatik gora artikulua idatzi ditu Jose Angel Urkiak **EUSKAL WIKIPEDIAN**

Pake Lekuko Wikipedia taldean hasi zen orain dela bi urte, Iñazio Irizarren laguntzarekin. Egunean bi artikulua idazteko ohitura du. Euskarari laguntzeaz gain, euskarazko wikipedian idaztea norberarentzat ere asebetegarria dela dio, eta animatu egin nahi ditu herritarrak parte hartzera.

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



edo beste iturri batzuetan aurkitzen dudan informazioarekin osatzen ditut nire artikulua". Perretxiko mota bakoitzaren deskribapena (kapela, orriak, hanka, haragia, etimologia), jangarritasuna, nahasketa arriskua, sasoiak, banaketa eremua eta erreferentzia bibliografikoen berri ematen du.

Kasu batzuetan, lehenetik zeuden artikulua osatu ditu Urkiak, baina gehienak —700dik gora— berriak dira. Ziurrenik, wikipediako munduko hizkuntza guztien artean euskara izango da perretxikoen inguruko informazio gehien eskaintzen duena. Jose Angelek landutako edukiekin 200 orrialdetik gorako bost liburuki osatu litezke.

Artikuluarekin batera doazen argazkiak ere Urkiak berak atera ohi ditu, gehienetan. "Ibiltzea ere komeni zait, eta ia beti eramaten dut argazki kamera txiki bat aldean nire ibilaldietan. Hartara, buruari ez ezik, hankei eta gorputzari eragiteko bidea ematen dit zaletasun honek".

EUSKARAREN ALDE

Perretxikoen saila amaitutakoan —oraindik kostatzen behar omen zaio pittin bat—, hegazi, landare edota sugeei buruzkoak idazteko asmoa du. Dagoeneko badiu halako hainbat artikulua argitaratuak (Argi-oilarra, Mokoke-rra, Errosta horia, Iparraldeko suge leuna...), eta baita Oñati eta Araozko pertsonai ezagunei buruzkoak ere (Jose de Azpiazu, Andres Araoz...).

"Gai batean edo bestean, arlo batean edo bestean, euskal wikipedia elikatzea eta, modu horretan, euskarari laguntzea da kontua", dio Urkiak. "Munduko entziklopediarik handiena da wikipedia, dohainik kontsultatu daitezkeena, artikulugileak dohainik aritzen direlako, eta uste dut inportantea dela euskarazko wikipedia ahalik eta osatuena

egotea".

Euskal wikipediaren edizioa argitara atera zenetik, 2001eko abenduan, ahalegin handia egin da ildo horretan, eta gaur egun 422.000tik gora artikulua ditu, eta mundu osoan dauden 300dik gora wikipediaren artean 30. tokian dago euskarazkoa. Baina lan asko dago oraindik egiteko, eta jakintza arlo batzuetan, bereziki, hutsune handiak daude oraindik, edukiak falta dira, eta, beraz, euskal wikipedia elikatzen jarraitu beharra dago.

PAKE LEKUKO WIKILARIAK

Horregatik, Urkiak animatu egin nahi ditu herritarrak Pake Lekuko Wikipedia tailerren parte hartzera. "Oñatin jende asko dago gai ezberdinen inguruan idazteko gai dena. Teknikoki ez da zaila artikulua argitaratzea, eta nork bere gustuko gaien inguruan idatz dezake, nahi duen beste denbora eskainiz. Ez dago inolako obligaziorik. Ni, egia esan, nahikoa 'engantxatuta' nago eta egunean bi artikulua idazten ditut, baina ez dago hain konstantea izan beharrik", dio Urkiak.

Wikipedian parte hartzeak gauza positibo asko dituela uste du Jose Angelek. "Bai, euskarari laguntzeaz gain, norberarentzat ere pozgarria da zeuk landutako edukiak sarean ikustea eta edonorentzat lagungarri gerta daitezkeela jakitea. Norberaren denbora libreari balio bat emateko modua da, zeure gustuko gaiak landuz, eta gauza berriak ikasiz".

Natura eta ingurumenarekin lotutako edukiez gain, biografiak (Tarana Burke, Gabriel Garcia Marquez, Andy Warhol...) eta bestelako gaiak ere ('Gerra eta bakea' eleberria, Amnistia Internazionala...) landu dituzte Pake Lekuko wikilariak. ■



Goian ezkerrean, Jose Angel Urkia, basoan egin ohi duen ibilaldietako batean, argazki kamera aldean duela. Eskuman, Iñazio Irizar, Pake Lekuko Wikipedia tailerreko sustatzailea eta Urkia.



Izugarrizko ALT XORRA

Perretxikoei buruzko milatik gora artikulua aurkituko ditugu euskal wikipedian, Jose Angel Urkiaren lanari esker. Espezie bakoitzari buruz jakin beharreko guztiarekin eta argazki ederekin hornituak. Txori, landare edota sugeei buruzkoak ere badaude, gutxiago, baina hauek ere oso interesgarriak. Izugarrizko altxorra, benetan.

1- HILTZAILE BERDEA (AMANITA PHALLOIDES)

2- GIBELOKRE ALMENDRAUSAINA

(RUSSULA GRATA)

3- ONDDOBELTZA (BOLETUS AEREUS)

4- LANPERNA IRINTSUA (AMANITA SOLITARIA)



Ondoko QRan ikus daitezke Urkiaren sarrera guztiak



"Eskatzaileen maila eta beharretara egokitzen dugu formazioa"

**AITOR MADRID
ZABALETA**

Aitor Madrid plaentxiarra da Oñatiko KZguneko arduraduna. Bost urte daramatza gure artean lanean eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditu kultur etxeko bigarren solairuan dagoen KZgunea ezagutzera, eta bertan eskaintzen diren ikastaroetan parte hartzera edo teknologia berrien inguruko zalantzak argitzera.

Nolako ikastaroak ematen dituzue KZgunean?

Askotariko formakuntzak ditugu: PC eta gailu mugikorren (smartphonea eta tableta) erabilera, oinarriko Internet, Ofimatika (LibreOffice eta Google), Irudia eta Bideoa (argazkiak ukitu eta bideoak sortu), Komunikazioa (WhatsApp, bat-bateko mezularitza, bideokonferentziak...) Sare Sozialak (Facebook, Twitter, Instagram eta TikTok), gure eguneroko bizitza hobetzen laguntzen diguten App-ak, e-Adiministrazioa, Produktibitatea (informatika hodeian), Segurtasuna (eros-

» **AITOR MADRID ZABALETA** / Oñatiko KZguneko arduraduna

"Teknologia berrien inguruko formakuntza jaso edo zalantzak argitu nahi dituen herritarrak lasai etor daitezke KZgunera"

Arrakala digitala murriztu eta herritarrak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietan (IKT) trebatzeko helburuarekin sortu ziren KZgunek duela bi hamarkada. Denborarekin, teknologia eta behar berrietara moldatu behar izan dute eskaintza. Aurrez-aurreko ikastaroak ez ezik, urrunekoak, bideokonferentzia bidezkoak, hitzaldiak eta zalantzak argitzeko tutoretza zerbitzua ere eskaintzen dute. Denak dohainik. Kultur etxeko bigarren solairuan egoitza duen Oñatiko KZguneko arduradun Aitor Madridek eman digu guztien berri.

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com

keta seguruak, birusetatik babestu...), Programazioa (HTML, Wordpress...).

100dik gora ikastaro ditugu guztira; beraz, egokiena da www.kzgunea.eus atarira jotzea eta han ikus daiteke eskaintza osoa.

Ikastaroen modalitateari dagokionez, aurrez-aurrekoak, bideokonferentzia bidezkoak edo urrunekoak (online, nork bere errimora egitekoak) izan daitezke.

Mailari dagokionez, berriz, oinarrizkoak, ertainak edo aurreratuak izan daitezke. Eskatzaileen maila eta beharretara egokitzen saiatzen gara. Sekula ordenagailu bat edo smartphone bat erabili ez duten pertsonak ere etor daitezke. Denborarekin, poliki poliki, denek lortzen dute oinarrizko maila bat, gutxienez.

Zer egin behar da ikastaroe-tan parte hartzeko?

Bi bide daude izena emateko. Modu presentzian, hona KZgunera etorrira, edo online www.kzgunea.eus atarian. KZgunean erregistratu behar da. Momentuan egiten den tramitea da, eta erabiltzaile-izena eta pasahitza eskuratu ondoren, edozein ikastarotara eman dezakezu izena. Non eta nola egin nahi duzun ere aukera dezakezu, eta taldea osatzen denean geu jartzen gara harremanetan zurekin.

Ikastaro guztiak dohainik dira.

Ikastaroez gain, tutoretza zerbitzua ere eskaintzen du-zue, ezta?

Bai, alde batetik, urruneko

ikastaro bat egiten ari diren ikasleen zalantzak argitzeko tutoretza dago, baina ez da derrigorrezkoa ikastaro bat egiten egotea. Azken batean edozein herritarrek jo dezake KZgunera. Teknologia berriak erabiltzean sor daitezkeen zalantzak argitzeko gaude: gailuak erabiltzean, trami-teak egiterakoan (erosketak, administrazioarekin egiten direnak, lana bilatzean...) se-gurtasunaren ingurukoak... Gu laguntzeko gaude, baina, egin, erabiltzaileak egingo du bere tramitea.

Formazioa emateko beste bide bat hitzaldiak dira, eta halakoak ere antolatzen ditu KZguneak ezta?

Bai, batzuk aurrez-aurrekoak izaten dira, KZguneetan edo hurbileko aretoetan, eta beste batzuk online, KZgunearen Youtube-ko kanalaren (KZ-guneaTIC) bidez. Pandemia garaian hasi ginen online bi-dezko hitzaldiak antolatzen, eta oso harrera ona izan zuten, mantendu egin dira. Ordu erdiko hitzaldi laburrak izaten dira, asteartetan (euskaraz) eta ostegunetan (gaztelaniaz). Askotariko gaiak jorratzen dira, IKTen inguruan betiere. Gainera, nahieran ikusteko aukera egoten da YouTube-ko kanalean.

IT Txartela edo BakQ ziurtagiria eskuratzeko aukera ere eskaintzen duzue.

Bai, IT Txartela eskuratzeko azterketak egiten ditugu. Teknologia berrietan (Internet, Ofimatika...) duzun ezagutza maila egiaztatzeko balio du,



Kultur etxeko goiko solairuan dago KZgunea

ORDUTEGIA - EGUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00 (*)

Arratsaldez: 16:00-20:00 (*)

(*) Txandako, hile batean goizez, eta hurrengoan arratsaldez egoten da zabalik. Azaroan goizez egongo da, abenduan arratsaldez

HARREMANETARAKO

943 023 672 / tutor.onati@kzgunea.net
www.kzgunea.eus

eta oso baliagarria izaten da oposizioetan, adibidez.

BakQ delakoa, berriz, agiri elektronikoa bat da, zure burua identifikatzeko administrazioaren aurrean, eta hainbat eragiketa egin ahal izateko modu telematikoan.

Bestalde, Metaposta zerbitzuan alta emateko aukera eskaintzen dugu. Jaurlaritzak eskaintzen duen postontzi kutxa-gotor moduko bat da, gure dokumentuak bertan gorde ahal izateko.

Zer esango diegu oñatiarrei?

Etor daitezela KZgunera, inolako beldur edo lotsa barik, teknologia berrien inguruko ezagutza handitzen laguntzeko gaudela. ■

Azaroko ikastaroak Oñatiko KZgunean

e-ADMINISTRAZIOA

- BakQ ziurtagiria
Azaroak 30 (11:00-13:00)

OINARRIZKO FORMAKUNTZA

- Android-en mantentze lanak. Luzatu zure gailuaren bizitza
Azaroak 2-3 (9:00-11:00)

- Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua erabiltzen ikasi
Azaroak 6-14 (9:00-11:00)

IRUDIA ETA BIDEOA

- Sortu bideoak zure gustuko irudiekin
Azaroak 15-17 (9:00-11:00)

PRODUKTIBITATEA

- Kudeatu zaitze Google aplikazioekin
Azaroak 20-29 (9:00-20:00)

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Elkartrukean parte hartzen ari diren Oñati, Ibarra eta Bedizzolako gazteak, Gaztelekuaren atarian

Cultural Shake

TOMORROW BEGINS TODAY

Kulturartekotasuna sustatzea helburu duen **elkartruke** programa batean parte hartzen ari dira **Gaztelekuko, Ibarako** (Gipuzkoa) eta **Bedizzoleko** (Italia) hamahiruna gazte



Gazteei udaletxean egindako ongietorriko une bat

Italiarrak Gipuzkoan izan dira bost egunez eta abenduan hara joango dira Oñati-Ibarakoak

Europar Batasunak sustatzen duen **Erasmus+** programan parte hartzen ari da aurreneko aldiz Oñatiko Gaztelekua, eta horri esker 16 eta 18 urte arteko hamahiru gazte elkartrukea egiten ari dira Ibarako (Gipuzkoa) eta Bedizzoleko (Italia) beste hamahiruna gazterekin.

Hezkuntza ez formaletik garatzen den proiektua da **Erasmus+**, eta helburua da gazteei ikaskuntza kultural batean murgiltzeko aukera eskaintzea, hainbat pertsonaren kultura, tradizio, esperientzia eta bizi-istorioak ezagutzeko aukera emango diena, beraien erosotasun eremutik ateraraziz eta aurreiritziei eta beldurrei aurre eginez. Estereotipoak alde batera utzita, gazteengan azterketa kritikoa egiteko gaitasuna garatzea da xedea.

Erasmus+ proiektuan parte hartzen duten aurreneko aldia da Oñati eta Ibarako gaztelekuentzat. Iazko ekainean hasi ziren lanean. Bi herrietako gazteen arteko harremana sustatzeko topaketak egin zituzten aurrena, bai Oñatin eta baita Ibaran ere, eta elkar ezagutu ostean proiektua lantzeari ekin zioten.

ASTINDU KULTURALA

Hala, 'Cultural shake: tomorrow begins today' (Astindu kulturala: bihar gaur hasten da) izenburua duen proiektua aurkeztu zuten, kultur-artekotasunean fokua jarriz. Gazteak kultura-aniztasunean sentsibilizatu, kontzientziatu eta prestatzearen garrantzia azpimarratzen dute, gizarte-koehisorako faktore positibo gisa eta gizarte askeagoak eta bidezkoagoak

eraikitzeko plataforma gisa.

Proiektua **Erasmus+**en plataforman eskegi ostean, Europako elkarte ezberdinetatik jasotako proposamenen artean aukeratu behar izan zuten, elkartrukea egiteko, eta horrela iritsi ziren Bedizzoleko (Italia) *Arcus, Arte e Cultura Sociale* elkartearengana, aurkeztutako proiektuen artean interesgarriena zela iritzita.

GAZTEAK BURU BELARRI IBILI DIRA PROIEKTUARI FORMA EMATEN ETA ELKATRUKEA PRESTATZEN, ETA IKASTE PROZESU OSO ABERATSA IZATEN ARI DA PROZESU OSOA

ELKATRUKEA

Orduz geroztik elkartrukea prestatzen jardun dute gazteek, Gaztelekuko begiraleekin batera eta oso esperientzia aberasgarria izaten ari dela aitortu dute. "Gazteak buru belarri murgildu dira prestakuntza lanetan eta ikaste prozesu oso aberasgarria izaten ari da".

Dagoeneko egin dute elkartrukearen lehen partea. Urriaren 10etik 15era gazte italiarrak egon ziren Gipuzkoan. Foru Aldundiak Zarautzen duen Igeraien aterpetxean hartu zuten ostatu trukean parte hartzen ari diren 45 gazteek, eta gure herrialdeko txoko eta proiektu ezberdinak ezagutu eta euskal kulturara hurbiltzeko aukera izan zuten italiarrek. Hala, Oñatiri dagokionez, Arantzazuko santutegia eta Larraña harrera-etxea ezagutzeko aukera izan zuten. Ibaran herri-kirolak eta euskal dantzak praktikatzeko aukera izan zuten, besteak beste. Abenduaren 2tik 7ra Oñati eta Ibarako gazteak joango dira Bedizzolera. ■

“BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR”

Zuntza+mugikor linea kontratatuz gero, bi **opari** hauen artean bat aukeratu dezakezu:

ERRATZ XURGAGAILUA

AIRE BIDEZKO FRIJIGAILUA

SOLIK AZAROAN
EG-INDAKO KONTRATAZIOETARAK

ZUNTZA 500 MB

✦ **2 MUGIKOR LINEA,**
PARTEATZEKO 50GB-EKIN

✦ **DEI MUGAGABEEKIN**

39,90€/MES

12 HILABETE, ONDOREN 42,90€



PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



MÁSMÓV!L
SAN MARTIN
AUZORA
AILEGATU DA!

BEZ barne. Doako instalazioa. Iraupena 3 hilabete. Prezio honek lehenengo 12 hilabeteetarako balio du, ondoren 42,90€. Opari-promoziua 2023ko azaroan letik 30era, edo stocka amaitu arte, LIZKER Informatika dendan MÁSMÓVIL-eko edozein mugikor + zuntza tarifa kontratatuz. Opario, zuntza instalatutakoan eskatu daiteke. Kontsultatu gainerako baldintzak LIZKER Informatika dendan.

MÁSMÓV!L
AHORRA, SIN MÁS

Udal zerga eta tasek %4ko igoera orokorra izango dute 2024an

EH Bilduren aldeko botoz onartu dira Zerga Ordenantzak. EAJ abstenitu egin da.

Urriaren 26ko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak 2024rako Zerga Ordenantza, EH Bilduren aldeko botoz eta EAJren abstentzioarekin.

Irizpide orokor bezala, udal zerga eta tasei %4ko igoera aplikatzea onartu zen, udal gobernu taldeak proposatu bezala. "2024an ere kalitatezko zerbitzu publikoak ematen jarraitzea da gure asmoa. Bestetik, orain arte bezala, egoera zaugarrian dauden eta behar handiena duten herritarrei zein herriko hainbat elkarteri dirulaguntzak ematen jarraituko dugu", adierazi zuen Ogasuna batzordeko buru Xabier Igartuak

Lurraldearen egoera ekonomikoari buruzko hainbat datu ere eman zituen Igartuak, proposatutako %4ko igoera arrazoitzeko. "KPIak %3,6 inguruko igoera izan du iazko irailetik aurtengora, eta udalen finantzaketarako Foru Funtzaren 2023ko itxierarako %3,4ko igoera aurreikusten da". Gainera, gogoratu zuen, iaz %10eko ez-ohiko igoera izan zuela KPIak, eta udal zerga eta tasak %4 garestitu zirela. "Datorren urterako Foru Funtzaren aurreikuspena 2023ko itxiera baino %7,78 handiagoa den arren, azken bi urteetako igoeraren batura %11,2 da, azken bi urteetako KPI igoeren batura baino puntu bat gutxiago. Hori guztia kontuan izanda, %4ko igoera proposatu dugu, eta oposizioak igoera horrekiko adierazitako adostasuna eskertzen dugu".

PROPOSAMEN BERRIAK

- **CO2 isuriak.** CO2 isuri baxuak dituzten ibilgailuei aplikatzen zaizkien hobarietan zehaztapenak egin dira. Orain arte %50eko hobaria zuten motor hibridoa duten ibilgailuek, baina zenbait ikerketak ditoez hibridoaren isurpenak konbustioak baino handiagoak izatera iritsi daitezke eta, beraz, hobariak isurketa kopuruaren arabera aplikatuko dira aurrerantzean.
- **Etxebizitza hutsei aplikatzen zaien erreargua.** Hutsik dauden etxebizitzetara aplikatzen zaien errearguari dagokionez, ordaintzetik salbuetsita geratuko dira ohiko etxebizitzako obrak direla eta, bigarrena erabiltzen denean, erroldan aldaketarik egin gabe.

- **Lurpeko aparkalekuak** Lurpeko aparkalekuei dagokionez, gauzez aparkatzeko abonua asteburu eta jai egunetan erabili ahal izatea onartu da, eta landa eremuko herritarrentzako abonua ere egokitu egin da, bai erabilera-tartea (9:00-21:00) eta baita tasa ere (25€).

- **Tokiko merkataritza.** Merkataritza establezimenduei Eraikuntza eta Obren gaineko zergan aplikatzen zaien hobaria ere egokitu egin da. Gaur egun %75ekoa da, baina aurrerantzean %90ekoa aplikatuko da negozio berrien kasuan, eta %75ekoa birgaitzeetan.

- **Tasa berria.** Zerbitzuei dagokionez, tasa berri bat (Hilobiaren garbiketa —23,65€—) sortu da, eta Santa Ana nahiz zine aretoaren erabilerarekin lotutako tasak ere berrikusi eta zehaztu dira, besteak beste.



Kalitatezko zerbitzu publikoak ematen eta behar handiena duten herritarrei zein herriko hainbat elkarteri dirulaguntzak ematen jarraituko dugu

XABIER IGARTUA

Udaleko Ogasuna batzordeko burua

EAJri ERANTZUNEZ

EAJk egindako proposamenei dagokionez, EH Bilduk ez du bat egiten ohiko egoitza ez diren etxebizitzetara Ondasun Higienezinen gaineko zergan aplikatzen zaien %100eko erreargua kentzearekin. "Herrian dauden etxebizitzetara erabileraz bultzatu nahi dugu. Errekargu hori, beste neurri batzuekin batera, baliagarria da emantzipatu nahi duten gazteei laguntzeko, etxebizitza bat alokatzeko

edo erosteko aukera izan dezaten", azaldu dute.

Kiroldegiko tasetan gazteen adin muga 22 urtetik 25era igotzeko eskaerari dagokionez, orain dagoen moduan ondo dagoela uste du EH Bilduk, orokorrean adin horren bueltan egiten delako lan mundurako saltoa. "Beranduago egiten dutenak ere badaude, baina horiek, diru-sarrerarik ez badute, hobariak eska ditzakete. Adinak ez ditu diru-sarrerak zehazten. Horregatik, bidezkoagoa iruditzen zaigu diru-sarreak kontuan hartzea, adina baino".

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergan tokiko merkataritza negozioei %90eko igoera orokorra aplikatzeko EAJk egindako proposamena begi onez ikusten du EH Bilduk, baina doikuntza bat egitea erabaki du: negozio berrientzat %95ekoa aplikatuko da eta birgaitzetarako %75.

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
 - Lentzeria
 - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI

ZERGA ORDENANTZA

EAJren PROPOSAMENAK

EAJk adierazi du ez duela begi txarrez ikusten 2024ko udal zerga eta tasei %4ko igoera aplikatzea —azken urteotako KPlaren igoera ikusita, batez ere—, ezta proposatu diren beste eguneratze batzuk ere. Hala ere, EAJk zenbait proposamen aurkeztu zizkion gobernu taldeari, eta onartu ez direnez, jeltzaleak abstenitu egin dira. Gainera, tokiko merkataritzari zuzendutako hobarien inguruan EAJk egindako proposamena EH Bilduk bere egitea egotzi dio gobernu taldeari. "Beraien hasierako proposamenean ez zegoen hobekuntzarik tokiko merkataritzaren hobariei dagokienez, eta EAJren proposamena onartu beharrean, beste hobari bat gehitu dute behin betiko dokumentuan". Edozein modutan, udal gobernuarekin hitz egiteko eta elkarlanean lan egiteko prest daudela adierazi du EAJren udal taldeak, oñatiarren bizi-kalitatea hobetuko duen zerga politika ekitatiboa eta eraginkorra sustatzeko helburuarekin.

Honakoak dira EAJk egindako proposamenak:

Errekargua OHZn. Ohikoak ez diren eta hutsik dauden etxebizitzetako Ondasun Higiezinaren gaineko zergan aplikatzen zaien %100eko errekarua kentzea proposatu du EAJk, azken urteotako alokairuko etxebizitzaren eskaintzaren eboluzioa ikusita, argi ikusten delako errekaru horrek ez duela bete jatorrizko asmoa, eta neurri zigortzaile hutsa delako gaur egun, jeltzaleen ustez.

Alokairu pribatuetan %50eko hobaria. Kontratu pribatu bidez alokatzen diren etxebizitzetako %50eko hobaria aplikatzea Ondasun Higiezinaren gaineko zergan, Bizigune/Alokabideren bidez alokatzen diren etxebizitzek duten bezala. Alegia, errekaruaren bidea jarraitu beharrean, hobariak aplikatzea proposatzen du EAJk, alokairu-eskaintza sustatzeko asmoz.

Kiroldegiko tasak. Kiroldegiko zerga eta tasei dagokienez gazteen adin muga 22 urtetik 25era igotzea proposatu du EAJk, lan merkaturatu sartzeko adina atzeratuz doalako.

Tokiko merkataritza. Tokiko merkataritzako negozio berriak eraikitze edo birgaitze hobaria %90era igotzea, eta hobari hori martxan dauden negozioei ere aplikatzea eskatu dute jeltzaleek, tokiko merkataritza bultzatzeko neurri gisa.



Datozen asteetan egingo dira auzo-bideak konpondu eta asfaltatzeko 2023ko lanak

Auzo-alkateen foroan adostutakoaren arabera, hamar auzo-bidetan egingo dira konponketa eta asfaltatze lanak. Zehazki, Iruatz, Lezesarri, Santa Lutzia, Tokillo, Kamela, Otadui-Urzelai, Agerre, Araotz Urruti eta Lurgorrieta baserrien inguruko bideetan egingo dira konponketa lanak, *Injelan* enpresak idatzitako exekuzio proiektuaren arabera. Altuna y Uria S.A.-k egingo ditu lanak 149.457 euroko aurrekontuarekin. Hurrengo astean dira astekoak, eta hiru hilabeteko epean amaitzea aurreikusten da.

Artzaintzarako hiru txabola lagatzeko prozesua abian jarri du Udalak

Udalak Aloña aldeko Onura Publikoko Mendian dituen artzaintzarako hiru txabolaren (Tellaetxabola I eta II, eta Pastorola) lagapena egiteko prozedura irekia jarri du abian. Deialdian parte hartzeko baldintza da gutxienez 60 ardiko artaldea edukitzea eta, txabolen emakida edo kontzesioak dirauen bitartean ardiek Aloña 2059.1 zenbakiko onura publikoko mendiko larreetan bazkatzea. Txabolen lagapena 5 urterako izango da eta urtean kanon bat ordaindu beharko da (2023ko prezioa 18,56€ txabolako eta urteko). Adjudikazioa egiteko baloratuko diren irizpideak: eskatzailea nagusiki nekazaria izatea, ardi kopurua eta ustiapenaren kalitatea. Eskaerak azaroaren 27a baino lehen aurkeztu behar dira udaletxeko HAZ bulegoan.



Torreuzo Auzoa, 10,
20560 Onati, Gipuzkoa
info@etxeaundi.com
+34 943 781 955

Menuak EtxeAundi Hotel-Boutique-ean

Ondo elikatzea gauza handia da, eta gozatuz are gehiago. Horregatik EtxeAundin aurrerantzean EGUNEKO MENU zoragarria dugu zuretzat. Astewartetik ostiralera EGUNEKO MENUA edo KARTA. Asteburuetan MENU BEREZIA edo KARTA. Cure espezialitatea parrillan erretako arrainak eta txuletoia dira.

Zatoz eta gozatu konpainia onenean!

'BERTAKOAK' aparkatzeko txartelak tramitatzeko epea zabalik

Datorren urtera begira 'BERTAKOAK' aparkatzeko txartela eskatu edo ezeztatu nahi duten herritarrek azaroaren 14ra arteko epea izango dute eskaerak egiteko udaletxeko HAZ bulegoan edo online, erregistro elektronikotik. Txartel berria eskuratu nahi dutenek autoaren zirkulazio baimenaren kopia aurkeztu behar dute. Lehendik 'Bertakoak' txartela duten herritarrei automatikoki berrituko zaie, kontrakoa adierazi ezean. Egun, 172 dira txartela duten herritarrek; gehienak (108) Bidebarrieta kale inguruko 6. gunean, eta gainontzeko 64ak, Aita Mortara kale inguruko 5. gunean.

Bidebarrieta kaleko 5 garaje plaza errentan emateko deialdia

Udalak Bidebarrieta kaleko 24an dituen 5 garaje plaza errentan emateko deialdia egin du. Garaje plaza irekiak dira (30 m²). Bost urteko kontratuak sinatuko ditu eta hileko errenta 73€-tan (BEZ barne) finkatu da. Errenta hau KPlaren arabera eguneratuko da urtero. Garajeen esleipena lehiaketa bidez egingo da. Eskatzaileak garaje plazarik edo lokalik jabetzen duen ala ez puntuatuko da, eta berdinketarik baldin badago, zozketa egingo da. Deialdian parte hartzeko 18 urte beteta eta turismo baten jabe izan behar da. Eskaerak HAZ bulegoan egin behar dira, azaroaren 24a (14:00) baino lehen.

Lazarraga lorategiak erabilera publikoa izaten jarraituko du beste lau urtez



Martinez de Irujo dukea eta Elorza alkatea hitzarmena sinatzen

Lazarraga jauregiko 4.000m²-ko berdeguneaz gozatzen jarraitu ahal izango dugu herritarrok hurrengo lau urteetan. Udalak eta Sotomayorreko dukeak berritu duten hitzarmenaren arabera, lorategiaren lagapena doakoa izango da eta egunero irekiko da (9:00-17:30) salbuespen hauekin: abuztuan eta irailean itxita egongo da, eta baita San Migel bixamona, Herri Eguna eta Errosarixo bixamon egunetan ere. Oñatiko udalaren kontura ordainduko dira ura, argia eta parkea erabiltzeko eta mantentzeko beharrezkoak diren beste gastu guztiak.

Administrari laguntzailea aldi baterako kontratatzeko deialdia egin du Udalak

Udaleko sail ezberdinetan lan egingo duen administrari bat kontratatzeko deialdia egin du Udalak, Lanbideren Enplegua Sustatzeko Toki Ekintzetarako programaren barruan. Sei hilabeterako kontratua egingo zaio, %60ko lan jardunarekin.

Oñatin erroldatuta eta langabezian egotea (Lanbiden izena emanda) eskatzen da. Formazioari dagokionez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa-2 edo baliokidea den titulazioa eskatzen da, eta euskarazko B2 maila izatea.

Izena emateaa Lanbideren webgunearen bidez egin behar da, azaroaren 8a baino lehen.

Landa-turismo herri onenen artean dago Oñati, Turismoaren Mundu Erakundearen arabera



Oñatik **'Best Tourism Village 2023'** saria jaso du Nazio Batuen Turismoaren Mundu Erakundeak (TME) Samarcandan (Uzbekistan) egindako batzarrean. Aurtengo edizioan TMEko kide diren 72 estatuetako 260 herriren hautagaitzak aztertu dira, eta saritu dituzten 54 herrietako bat da Oñati, landa guneetan dauden balioak, produktuak eta bizi-estiloak zaindu eta sustatzen dituelako, eta berrikuntzarekin eta iraunkortasunarekin konpromisoa duelako, TME-k azaldu duenez. Turismoa landa-garapenaren eta komunitatearen

ongizatearen eragileetako bat den aldetik, aintzat hartzen ditu ekonomian, gizartean eta ingurumenean konpromiso jasagarriak dituzten herriak.



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiausti Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ARRASATEN

Zuatzu Klinika da
zure konfiantzazko
klinika



Ginekologia
eta Obstetria



Jaio aurreko
diagnostikoa



Bularreko
patologia



Laguntza
Bidezko Ugalketa



Ginekologia
birsortzailea

8 Mediku
profesional zuri
arreta emateko

Eskatu zure hitzordua
Zuatzu Mondragón
Nafarroa Etorbidea, 4 (behea)
943 792 018



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñati Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

bigga. studio

Kolaboratzaileak:

Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

LA PEQUEÑA TOLEDO

Iñaki Idigoras Igartua

Horrela izendatu izan digute Oñati gure herria: "la pequeña Toledo"; espainieraz eta Espainiari erreferentzia eginaz.

Bada horretarako arrazoirik: erdi aroko eraikin monumentalak ditugu Oñatin: Sancti Spiritus Unibertsitatea, Lazarraga dorrea, Bidaurreta komentua, Zumeltzegi dorrea eta San Miguel parrokia berritua, esaterako. Aberastasun eta boterearen isla dira eraikinok. Ezagunak ditugu atzetik dauden hiru gizonak: Rodrigo Mercado Zuazola apezpikua, Juan Lopez Lazarraga ekonomilaria eta Pedro Belez Gebara kondea.

Ezagunak, edo. 1512aren bueltakoak dira hirurak, Espainiaren garai oldarkor eta loriatsukoak. Elite oñatiarra estuki lotuta zegoen espainia feudaleko koroarekin, errege katoliko ase ezinekin, hain zuzen ere. Faboreak egiten zizkieten erregeoi, eta bueltan sariak jaso: diru, lur, baimen zein izendapen. Zein fabore mota egin zituzten?

Zuazola, Nafarroa konkistatu berriko erregeorde Antonio Manriqueren kontseilaria zen. Nafarrak nola otzandu pentsatzen ibiliko ziren, biek ala biek Iruñeatik ihesi atera behar izan zutenean, nafarrek independentzia berreskuratzeko egindako hirugarren saiakeran, 1521ean. Mallorcako apezpiku zen orduan. Gero Avilako izendatu zuten, eta inkisizioan aritu zen Zaragozako judutarren kontra. Lan hauengatik lortu zuen Sancti Spiritus egin arazteko dirutza eta baimena.

Gebara, Oñatiko jaun. Zumeltzegi dorretik bere oinen azpian zituen Oñatiko etxeak, eta halaxe zanpatzen zituen oñatiarrak. Kapitain aritu zen Nafarroa konkistatzen 1512an, Noainen 1521ean, zein Amaiurren 1522an. Bere agindupeko Juan Arbizu zigortu egin zuten espainiarrek, Jakue Belatz Medrano Amaiurko kapitain heroikoarekin baimenik gabe hitz egiteagatik, hauek errenditu berritan. Herritar xeheek bazuten atxikimendurik anai euskaldunekin.

Lazarraga, Gebaratarren konfidantzazko gizona zen, baina Espainiako koroara salto egin zuen, Isabel erregina espainiarraren

administrari, eta haren senar Fernandoren sekretario izateraino. Amerikarrei ebastitako aberastasun bete itsasontzi Cadizera iristen ziren garaietan, espainiar koroaren kontabilitate buru izan zen. Esklaboak zituen. Nafarroa konkistatzen aritu zen, kapitain gisa berau ere. Bidaurreta egin arazi zuen, hain estimuan zituen eta baimena eman zien Espainiako errege katolikoekin armarrria bertan ezarri.

Espainiak sarituak, euskaldunen aurkako borroketa, Nafarroaren konkistan parte hartzearen truke, besteak beste.

Sancti Spiritus, Lazarraga, Bidaurreta, Zumeltzegi eta San Miguel: Oñatiko turismoaren ikur. Eliteko hiru gizon handiki eta espainiarzale horiek utzi digutena ikusgarria da, erakusgarria ere bai. Baina zer da kontatu behar duguna? Espainiako hiru gizon handikiren historia? Eta milaka oñatiarrek, nola bizi izan zituzten garaioak?

Sumatzen genuena baieztatu egin du Gazteluaitzen egindako indusketa: 1000. urtearen bueltakoa da. Europa mailan errekonozitutako erresuma nafarraren baitan ginen oñatiarrok ere, beste euskaldun guztiekin bat eginik.

Nafar, 1200ean gaztelarrek konkistatu gintuzten arte. 1512rako gure eliteak zeharo espainiartuta zeuden, ikusi dugunez. Gutxi dakigu herritarrez, jasaten zituzten kondearen abusuei erantzuteko elkartzen zirelakoaz gaindi.

Dakiguna da nafar estatua ez zela feudala, eta zentzuzko konstituzio bat -Forua- zeukala, erregeen balizko gehiegikerietatik ere herritarrek babesten zituena. Lur komunalak kudeatzen zituena. Herri batzarretan erabaki eta auzolanean egiteko ohitura zuena. Funtzionarioak zituena defentsa, justizia eta administrazioa gauzatzeko. Garaian ohiko ziren estatu absolutisten alboan, kontraste handia egiten zuena zuzenbide piriniarrear oinarritutako sistema juridiko sozialagatik.

Dekonolizatu dezagun oñatiarren kontakizuna: ez al dugu kontatu behar, gure borondate eta legeen kontra konkistatuak izan ginela, eta Nafarroatik erauziak? Ez al dugu kontatu behar, ondoren, Espainiaren itzalean



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

jauntxo batzuk zitaldu egin zirela eta gu menpean hartuz eta Nafarroaren konkista prozesu berrietan lagunduz aritu zirela? Ez al dugu kontatu behar, gauzak bestela zirela 1200 aurretik, Europako euskal estatu independentearen baitan ginelarik? Ez al dugu kontatu behar, goraiatu ohi ditugun hiru gizonok boterea eta aberastasuna irabazi zituztela, besteak beste, euskaldunon estatua eraisten jardunda?

Kontatzen laguntzeko baina, heldulekuak behar ditugu: memoria lekuak. Bertara joan eta memoria egiten lagunduko diguten lekuak. Administrazio nafarreko gazteluak desagertu ziren, toponimian geratu diren arren: goian aipatu Gazteluaitz, Kastillokoa, Gazteluko haitza eta erreka, Gaztelondo...

Apenas diren ezer gure begietara, "la pequeña Toledo"-ko monumentuen alboan. Zerbait behar dugu, komeni zaigun kontakizuna kontatzen lagunduko diguna. Menperatuaren ikuspegitik atera eta ahaldunduta hitz egiteko: kontatu dezagun herri libre izan ginela, euskal estatu baten baitako, eta horrela izan gogo garela, bortxazko eta menpekotasunezko hainbeste mende eta gero ere.

Oñatiko banderari kendu berri diogu Espainiako bandera zaharra, Borgoñako gurutzea.

Bandera nafarra berreskuratu dugu, estatu independentea gogoratzeko: batzarren sinbolo den Gernikako haritzaren, eta askatasunaren sinbolo diren Foruen enparantzaren tartean dago, egoki.

Nahikoa al da? Nola sortu dezakegu Oñatin memoria leku bat, kontakizun espainiarrari gain hartzen lagunduko diguna? Euskaldunok ahaldunduko gaituena etorkizun duinago bati zentzuz heltzeko?

ESKERRIK ASKO KONTZEJUPETIK!

Aratz Losada, Kontzejupetik aldizkariko diseinu eta maketazaila ohia

Jubenil mailako Aloñako futbol jokalarixa nintzala hasi nintzan kirol kazetaritzara zaletzen. Irratixa entzun, aldizkari eta egunkarixak erosi eta, asperketan nintzanian, kronikak idazten hasi nintzan ikastolako kuadernuan. *Radio Popular*, *Don Balón* edo *Marca* bezalakuak zian nere erreferente nagusixak. Danak be, gaztelera hutsezko medixuak.

2004ko ekaina. Nere lehen aldizkarixa. Aurrez aipaturiko erreferentia ere gisa hartuta, nere ekipuaren denboraliko balantzia egitten eben 12 orriko aldizkari bat diseinatu, idatzi eta maketau neben gaztelera hutsian.

2005 ekaina. Aloñako futbol taldiaren bigarren aldizkarixa egin neben. Hau be, gaztelerez. Kasu honetan, preferente mailako taldiaren balantziarekin. Iazkoa baino mardulagua (24 orri) eta zentzu guztixetan osatuagua.

2006ko ekaina. ALM aldizkariaren 3. zenbakixa. Akaso, kirol arluan, azken hamarkadetan futbol sailak euki dauen urterik onena laburbiltzen eben alia. Hor be, hobetzeko ahalegina egin neben. 28 orri eta orainguan bai, euskaraz %100. Diseinuzko inungo formakuntza barik hasieran eta ikasketa garaixan ondoren. Horrelaxe atara gittuan hiru zenbakixok. Plurala ebaltzen dot, aittaren laguntza ezinbestekua izan zalako ale honeik danak inprimatu eta ordaindu ahal izateko. Gauza xumiak, baina urtetik urtera hobiak.

Argitalpen eta Diseinu Ekoizpeneko ikasketak bukatuta, 2007 bukaeran allau xaten Kontzejupetik-en maketazina eta diseinua eruateko aukeria. 22 urtetxo besterik ez neukan eta bildur puntu batekin, baina zela esan ezetz horrelako aukera bati?

2008ko urtarrila. Otsaileko alia (170 zkia.) izan zan maketau neben lehena. Ordutik hona, 172 gehixago etorri dira. Horrez gain, 3 diseinu aldaketa eta, gehigarri edo ale bereziren bat be landu ahal izan dot. Diseinu eta maketazina asko trebatu naiz baina kazetaritza, argazkilaritza edo arlo komertzialaren mundua be, gertuagotik ezagutzeko aukeria eskaini dost lan zoragarri honek.

2023ko urria. 16 urteko harreman profesionalaren ostian, hemen bukaketan da Kontzejupetik aldizkariko diseinu, maketazio eta arlo komertziala erutiaren ardura. Lan bat baino askoz gehixago izan da Oñatiko udal aldizkarixaren familixaren parte izatia. Herritar ugari ezagutu ahal izan dittut, gure hizkuntzia maitatzen eta ebaltzen ikasi dot... erredakzinoko lantaldeetik urteteko ordua allau xat, baina irakurlien txokuan topauko nauzue aurrerantzian.

Eskerrik asko urte guzti honeittan bidelagun izan zaittuztedan danoi. Egindako akatsak barkatu eta, ahal dala, aldizkarixa irakurten jarraitu. Globalizazio basati honen garaixan, tokiko eta, batez be, herriko euskarazko komunikabide propiua eukittea, sekulako altxorra da eta.

Eta bukaketako, lñigo, zuretzat dira azken hitzak. Asko ikasi dot zure albuari eta konfidantzan oinarritutako ekipo polita osatu dogula esango neke. Faltan botako dot Olakuako lantokixa; aldizkarixa eta irratixa. Segi bardin bikote, sekulako lana egitten dozue!



Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



PINTURAS

URBIA

MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



Gure ekintzen berri emango duen atala...

TXALOKA UDAL LUDOTEKAKO IKASTURTE BERRIA MARTXAN

Txaloka Ludoteka, Oñatiko haurrek, euskaraz jolastuz, lagunartean gozatzeko leku bezala ulertzen dugu. Horrez gain, hainbat balore landu eta garatzea ere badugu helburu bezala: autonomia sustatzea, sormenari lantzea, aniztasuna eta hezkidetzaren bermatzea, emozioen ezagutza eta lanketa egitea, eta guzti horrekin batera, euskararen erabilera sustatzea eta indartzea.

Txaloka Udal Ludotekak eskaintzen duen barruko espazioa aprobetxatuko dugu, baina kanpo espazioa ere erabiliko dugu ahal den heinean; herriko parke ezberdinetara irteten saiatuko gara eta iaz estreinatu genuen ludotekako ortuari (Ortutxiki) ere probetxua ateratzen saiatuko gara berriro ere.

Horrela Ludotekak 3 urtetatik hasi eta 9 urtera arteko haurrak betzen dituen espazio bat da. Azken urteetako ordutegi berarekin jarraitzen dugu aurten ere, hau da, astelehenetik ostirlera 16:45etatik 19:45etara bitartean.

Gerturatu gurekin jolastera, ongi etorriak izango zarete!

JAPAN WEEKEND

Oñatiko Jaixak amaitu berritan, urriaren 7an, Japan Weekend-aren edizio berri bat ospatu zen. Batzuk jakingo duzueenez, otsailean ere Bilboko BEC-en antolatzen den Kultura Japoniarraren (manga, anime, ikuskizun, hitzaldi...) erakustazokan izan ginen, Kubo zein Topalekuko gazteekin. Edizio honetan ere Bergara, Elgoibar eta Debako Gaztelekuetako kideekin partekatuko dugu autobusa, bazkal ordua eta elkar ezagutzeko dinamika, eta herri ezberdinetako gazteen arteko elkarrekintzak nabarmen gora egin duela ikusi dugu.

Aurreko edizioarekin alderatuz Oñatitik joandako gazte kopurua igo da, eta kanpotik ikusita badirudi komunitate hau hazten ari dela, baina errealitateak dioskuna da dagoen lekua egiten ari gaitzaz, benetan duen tamaina eta indarra hartzen ari dela.



BURU ARINEN TAILERRAK

Kuboko ikasturte hasiera ere ekintzaz beteta eduki dugu; eta beste ekintza batzuen artean Oñatiko haurrengan indar handia hartu duen txorimalo eta erraldoien inguruko hainbat ekintza egin ditugu.

Jaien bueltan, Oñatiko erraldoien konpartsa txikiko erraldoiak kaleratu ziren lehen aldiz, hauen disenua elkarrekin erabaki ostean. Bestalde, irailaren 24an egindako buru arinen tailerrean 30 haurrek eskuz haien buru arinak egin zituzten eta hasi gara hauetako batzuk kalean ikusten!



GAZTELEKUKO XXIX XAKE TXAPELKETA

Azkenik, Urtero bezala, azaroaren 19an Oñatiko Gaztelekuko Xake txapelketa antolatu dugu. Aurten XXIX. edizioa izango da. Izen ematea dagoeneko martxan dago eta azaroaren 17an bukatuko da. Izena emateko bide ezberdinak daude:

- Oñatiko Gaztelekuan (ohiko ordutegian)
 - Telefonoz (943 71 82 57 – 658 725 679)
 - Whatsappez (658 725 679)
 - Emaillez (gazteinformazioa@onati.eus)
- Animatu parte hartzera!!!

Agenda

Kontzertuak

- Azaroaren 4an, Txantxiku Ikastolak antolatutako jaialdia.
- Abenduaren 2an, 22:30etan. Letagin + Niña Coyote eta Chico tornado. Sarrera 10€

Kuboa

- Azaroak 18, galleten dekorazio lehiaketa.
- Azaroaren 25eko ekintza berezia.

Ludoteka

- Azaroaren 24an, ostirala. Maider Urzelai ipuin-kontalaria Ludotekan.

Gazteriarentzat Sormen dirulaguntzak

- Azaroaren 15ean. Eskatzeko azken eguna.

EMAKUMEEN ETXEA

Azaroaren 18an egingo da ikasturteko lehenengo parte hartze saioa, Eltzian (10:00-14:00)

Oñatiko Emakumeen Etxearen sorkuntza prozesua, eraikuntza kolektiborako ariketa erraldoi bat izaten ari da, eta 2023-2024 ikasturtea erabakiorra izango da lan horretan. Etxearen nolokotasunak erabakiko dira ikasturte honetan; funtzionamendua, arauak, elkarbizitzarako kodeak, bertan burutuko diren ekintzak, erabilerak, antolaketa, gobernantza ereduak, eta abar.

Bide hori azaroaren 18an hasiko da, eta lehenengo lana izango da etxearen definizioa borobiltzea, eta helburu edo asmoak adostea. Aise kooperatibako kideek lagunduko dute lan horretan. Zalantzarik izanez gero, udaleko Berdintasun arloarekin (berdintasuna@onati.eus) jar daiteke edonor harremanetan. Gogoratu, *labur.eus/emakumionetxia* gunean edo *Instagram* kontuaren bidez ere egin daitekeela prozesuaren jarraipena.

2019ko Oñatiko Adierazpena bultzatzeko jardunaldiak egin dira Bilbon



2019ko apirilean, Lanaren Nazioarteko Erakundearen mendeurrena zela eta, nazioarteko biltzarra egin zen Oñatin, Lege-Soziologia Erakundeak antolatuta, Eusko Jaurilaritza eta EHUrekin elkarlanean. Kongresu haren amaieran, Eusko Legebiltzarraren ahobatezko babesa zuen Oñatiko Adierazpena aurkeztu zen. Dekalogo gisa onartu zen adierazpen hark lan-zuzenbidearen dimentsio sozial guztiak

errespetatuko dituen lan-harremanen eredu baten aldeko aldarria egiten zuen, eta hori sustatzea helburu zuten jardunaldiak burutu berri dira Bilbon, arlo akademiko, sindikal eta administratiboko ordezkarien partaidetzarekin.

Idoia Mendia lehendakariordeak inauguratu zuen Deustuko Unibertsitatean burutu zen saioa, eta bertan izan ziren, besteak beste, Félix Peinado, Lanaren Nazioarteko Erakundearen Espainiako bulegoko zuzendaria, eta 2015ean Bakearen Nobel Saria eskuratu zuen Langileen Tuneziako Batasun Orokorreko ordezkari Sami Tahr jauna. Elkarrizketa sozialari buruzko ikuspuntuak elkarbanatu zituzten, aldaketarako eta lanaren duintasunerako tresna gisa duen garrantzian azpimarra jarritz.

Udazkeneko barazki eta fruituen inguruko sukaldaritza tailerra

'Naturaren erritmoetara elikadura eta ongizatea zainduz' tailer zikloaren barruan, udazkeneko barazki eta fruituen inguruko sukaldaritza tailerra egingo da Natur Eskolako sukaldean. Ondoren, prestatutakoa bertan bildutakoen artean jango dute, elikadura kontzientea praktikatzuz. Tailerra **azaroaren 11n** (11:00-13:30) izango da. Izen-ematea (5€) 651701741 / 747405028 / info@amaianutrizioa.com

Kantu bazkaria, gaztaina jana eta beste Pake Lekun

Ekitaldi egitarau bete-betea antolatuko dute Pake Lekun azarorako. Batetik, Ikusi-Makusi taldeak antzezlan berria aurkeztuko da (ikusi 31. orrian). Bestetik, **azaroaren 15ean** Murgialdai baserria ezagutzeko irteera egingo dute, **hilaren 25ean** kantu bazkaria izango dute, **hilaren 29an** gaztaina jana, eta, azkenik, **abenduaren 1ean** Txillidaren tailerra eta lantegia, Zeraingo eliza eta Aizpeako meategiak ezagutzera joango dira.

Azaroaren 18an Bilbon egingo den manifestazio nazionalerako deia egin du EH Bilduk

OÑATITIK AUTOBUSAK IRTENGO DIRA

EH Bilduk Mobilizazio Nazionala antolatu du azaroaren 18rako Bilbon, La Casillan, 17:30etan, eta bertara joateko autobusak egongo dira Oñatitik, bai goizez eta baita arratsaldez ere. Goizekoak 10:30etan irtengo dira, eta arratsaldekoak 15:00. Kasu bietan Enpresagintza fakultatetik. Izen-ematea Arrano tabernan egin behar da (langabeak 5€ eta langileak 10€).

Euskal nazioaren eta erabakitze eskubidearen aldarrikapena egiteko antolatu da mobilizazio nazional hau, eta bertan 'Txoriak txori' abestuko dute "sekula egin ez den bezala, munduak entzun gaitzan", adierazi dute antolatzaileek.

I. Hika Topaketa egingo da Oñatin

Hitanoa bultzatzen ari diren eragileak batu eta elkarlanerako bideak aztertze asmoz, Euskal Herriko I. Hika Topaketa egingo da Oñatin, azaroaren 10ean, Badihardugu elkarteak eta UEUK antolatuta, Oñatiko udalaren babesarekin. 'Ingo xonau!' egitasmoaren bidez hitanoa bultzatzeko Oñatin egiten ari den lanari aitortza egin nahi izan zaio horrela.

Egun osoko (9:30-17:30) lan topaketa izango da, hika edo hitanoa bultzatzen ari diren eragile, elkarte, irakasle eta euskara teknikariek zuzendua. Gehienez 60 lagun. Azaroaren 7a da izena emateko azken eguna. Egitaraua eta informazio gehiago (www.ueu.eus) atarian.

Iñazio Ibarrodo omenduko dute parrokiak

Iñazio Ibarrodok 50 urte betetzen ditu parrokiako koruko zuzendari gisa, eta urte guzti horietan egindako lana (hiletak, urteurren mezak...) eskertzeko, omenaldi xumea egingo diote **azaroaren 26an**, 12:00etako meza ondoren. Parrokiako koru biek abestuko dute herritarrekin batera, eta oroigarriak emango dizkiote Ibarrodon.

MENDI

Azaroak 7-19

HAMABOSTALDIA

MENDI ASTEA 2023
OÑATIKO KULTURETXEAN
AZAROAK 6TIK - 19RA



AZA 6TIK 19RA JULEN AXPE
ARGAZKI-ERAKUSKETA SOTOAN

AZA 7AN JORDI PONS SANGINÈS
ALPINISMO SIN FICCIÓN 19:30

AZA 9AN mendi tour BBK MENDI FILM
CINE CLUB 20:00

AZA 15AN SILVIA TRIGUEROS
"TOR" FILMA + SOLASALDIA 19:30

AZA 17AN SANTI UGARTE
"ZULOAN ZU?" FILMA + SOLASALDIA 19:30

Aloña Mendi - Mendi Saila



» Pandemiak eragindako hiru urteko etenaren ostean, bueltan da Mendi Hamabostaldia, Aloña Mendiko mendi sailaren eskutik

» Azaroaren 9ko zine emanaldiko sarrera 5€-koa izango da. Gainerako emanaldiak dohainik dira

EGITARAUA

AZAROAK 7 — Kultur etxean, 19:30

'Alpinismo sin ficción' ikus-entzunezkoa
(Jordi Pons Sanjinés)

AZAROAK 9 — Kultur etxean, 20:00

'Mendi Tour'. Mendi Film jaialdira aurkeztutako lau pelikula ikusteko aukera:

From shade to light

El retorno

A Baffin Vacation

Adrenaline sucks

AZAROAK 11 — Jaturabeko aparkalekuan, 9:00

Arrikruzera irteera. Ez da ibilaldi turistiko bat. Jaturabeko sarrera txikitik sartuko gara eta ibilbidea tekniko samarra da, arrastaka ibili behar da eta eskalada txikiak ere egingo ditugu. Kopetako argia, kaskoa eta aldatzeko arropa eta oinetakoak eraman behar dira. Izena emateko azken eguna: azaroak 6, ondorengo link-ean (<https://labur.eus/3FxpJ>)

AZAROAK 15 — Kultur etxean, 19:30

'TOR' filma eta solasaldia Silvia Triguerosekin

AZAROAK 17 — Kultur etxean, 19:30

'Zuloan zu?' pelikula. Oñatin egindako espeleologiako filma. Arantzazuko leize batean izandako azken esplorazioak eta ustekabeak, Aloña Mendi Espeleologia Taldearen eskutik. Ondoren solasaldia. Bukaeran mendi materiala zozkatuko da bertaraten direnen artean.

AZAROAK 6-19 — Kultur etxeko erakusketa aretoan

Argazki erakusketa. Julen Axpe argazkilari aramioarren argazkiak ikusgai egongo dira. Egunero, 18:00-20:00.



oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

Mendi federatu kanpaina 2024

Aloña Mendiko Mendi sailak abian jarri du 2024 urterako federatu kanpaina. Aurtengo federatuei automatikoki berrituko zaie txartela, kontrakorik adierazi ezean, egun duten estaldura maila berbera mantenduz.

Aldaketaren bat egin nahi izanez gero (altak eta bajak, helbide edo kontu korrante zenbakiaren aldaketa, harremanetarako telefonoa edo emaila, gehigarri gehiago, gutxiago...) mendi saileko ordezkariak Aloña Mendiko bulegoan egongo dira **azaroaren 8, 14 eta 16an**, arratsaldeko 18:30etatik 20:00etara. Emailaz ere eska daitezke aldaketak alonamendi.mendi@gmail.com helbidera idatzita.

Federatu **TXARTEL ARRUNTA**rekin estatu mailan egongo gara babestuta, Espainiako Pirineoak barne. Aterpetxe gehienetan deskontuak izango ditugu, Kataluinakoetan barne. Gainera, Euskal Federazioak antolatutako ekintzetan (ikastaroak, lasterketak...) parte hartu ahal izango dugu. Frantziar Pirineotara pasatzeko, **PIRINEOAK** gehigarria behar dugu. Gehigarri honekin, Andorran, Portugalen eta Atlasen ere babestuta gaude. Alpeetara joateko **MUNDUA** gehigarria behar da. **FEDME** gehigarriarekin Gredos, Sierra Nevada eta munduko aterpetxeetan deskontuak izango ditugu eta Espainiako federazioak antolatutako ekintzetan parte ahal izango dugu. Mendi eskia babestuta dago mendi txartelarekin. Pistako eskiak gehigarri berezia behar du, **ESKI** ala **SNOWBOARD**. Mendiko bizikletak **BTT** gehigarria behar du.

Azaroko mendi irteera (Galdames)

Aloña Mendik azarorako antolatu duen mendi irteera **hilaren 19an** izango da. Bizkaia aldean egingo dute ibilaldia, Bilbo inguruko meatze-mendietan (Triano mendiak) barrena.



Pico de la Cruz (803m.) mendia

Ibilbide zirkularra da, be-raz; Galdameseko San Pedro auzoan abiatuta, Pico de la Cruz (803m.), Gasteran (801m.) eta Ganeran (823m.) mendiak igoko dituzte. Guztira, 16 kilometro eta 850 metroko desnibel positiboa, 6-7 ordutan egitekoa. Ez dauka zailtasun teknikorik. Irteera goizeko 7etan izango da, Korreos parean. Izena emateko azken eguna, azaroak 16, Aloña Mendi tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Federatuta egon behar da.

» Motzean

Malen Osa 4. sailkatu da Golden Trail Series-en



MENDI LASTERKETAK Malen Osa, Salomon taldeko korrikalaria, 5. sailkatu zen urriaren 19-20an Golfo del'Isola-n (Italia) jokatu zen *Golden Trail Series*-eko azken lasterketan. Ezin izan zion eutsi ordura arte zeukan podiumeko hirugarren postuari eta sailkapen orokorreko 4. tokian amaitu du. Emaizta bikaina, hala ere, maila honetan debuteko urtea duela kontuan hartuz.

Claudia Martin Gipuzkoako txapelketako podiumean



KARATEA Urriaren 8an Aretxabaletan jokatu zen Gipuzkoako karate txapelketa, eta Claudia Martin, Aloña Mendiko kadete mailako karateka gaztea 1. sailkatu *Kumite* edo borroka modalitatean (61 kilo azpikoen mailan), eta 2. Kata modalitatean.

Bidea egiten jarraitzen du Antxintxikak



DUATLOIA Antxintxika triatloi taldeak urratsak ematen jarraitzen du kirol egokituari ikusgarritasuna ematen, inklusioaren alde. Santander eta Zumaiako triatloietan eta Galdakaoko duatloian parte hartu ostean, Donostiako 15 kilometroko lasterketan

parte hartu zuten. Hurrengo erronka azaroaren 4an izango dute, Antxintxikak berak antolatzen duen Soraluze eta Bergara arteko lasterketan.

Gaztelekuko Xake txapelketa azaroaren 19an jokatuko da

XAKEA Hilaren 19an jokatuko da Gaztelekuko XXIX. Xake txapelketa, goizeko 9:00etan hasita. Suitzar erara jokatuko da (6 itzuli, bakoitza 15 minutukoa). Saritan 800 eurotik gora banatuko dira. Lehen gazteentzat (-18 urte), gizon eta emakume, sariak egongo dira, eta baita lehen oñatiarrentzat ere. Izena emateko azken eguna: azaroak 17 (658725679 / 943718257 / gazteinformazioa@onati.eus). Plaza mugatuak.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

OÑATIKO XLV. MUSIKEGUNAK. AZAROAK 5, 12 ETA 19

Musikegunak

» Oñatiko udaleko eta Foru Aldundiko kultura sailek antolatzen duten musika jardunaldien baitan estilo ezberdinetako **hiru kontzertu** ederrez gozatzeko aukera izango dugu aurten

» **Euskal musika** eta **flamenkoaren** arteko fusioaz gozatzeko dugu lehen kontzertuan. **Gabriel Aresti**ren unibertsoan murgilduko gara bigarrenean. Azkenik, Ganbara Faktoriaren **Aequus orkestrak** Beethoven, Schubert eta Mendelssohn maisuen musika ekarriko digu

AZAROAK 5, IGANDEA, SANTA ANAN, 19:00

Flamenko Etxea 2

Euskal musika eta flamenkoaren arteko fusioa



Euskal musikaren eta flamenkoaren arteko fusioaz gozatu ahal izango dugu, nor bere arloan erreferente eta maisu diren Jose Luis Montón gitarristaren eta Gorka Hermosa soinu-jolearen eskutik.

Gitarra-jotzailea eta konpositorea, Jose Luis Montonek sona handiko sariak eskuratu izan ditu, hala nola, Bartzelona eta Nimeseko nazioarteko lehiaketetan, eta Mardilgo Círculo de Bellas Artes eta Teatro Albéniz sarietan. Eta munduko eskenatoki garrantzitsuetan izan da bere gitarrarekin, Miguel Poveda, Ara Malikian, Antonio Canales edo Rosalía bezalako artista handiekin.

Gorka Hermosa soinu-jole urretxuarrak iraultza ekarri du akordeoiaren mundura, eta, hala, lau aldiz jaso du instrumentu honentzako konposiziorik onenaren saria, munduko akordeoilarien elkartearen eskutik. Bi disko grabatu dituzte elkarrekin, euskal musikaren eta flamenkoaren arteko elkargunea proposatuz oso modu naturalean.

AZAROAK 5, IGANDEA, SANTA ANAN, 19:00

'Arestian, egun...'

Andoni Salamero, Andoni Egaña eta Aitor Furundarena



Gabriel Aresti

Gabriel Aresti (Bilbo, 1933-1975) idazle eta poetaren inguruko ikuskizuna da 'Arestian, egun...' izeneko emanaldia. Proiektu berria eta eraldatzailea. Arestik bizi izan zuen garai zail hura bere olerkien bidez adierazteaz gain, hura hunkiarazi zuten gaiak —euskara,

justizia, kultura, egia, klase sozialen bereizketa, Euskararen batasuna...— egun bizi dugun egoerarekin konparatzea eta hori plazaratzea da saioaren helburua.

Oskorrik eta beste sortzaileek musikatutako abestiak baliatuko dituzte ekitaldia girotzeko, eta Aitor Furundarena soinu-jotzaileak garai hartako eta egungo doinuen arteko fusio berezia egingo du.

Sortzaile bakoitzak Aresti berrinterpretatuko du, bakoitzak egokien menperatzen duen esparrutik.

Kontzertu bakoitzeko sarrera 6€. Hiru kontzertuetarako bonua 15€ / www.oñati.eus eta Txokolateixan



AZAROAK 19, IGANDEA, SAN MIGEL PARROKIAN, 19:00

Aequus Ensemble orkestraren KONTZERTU SINFONIKOA Beethoven, Schubert eta Mendelssohn

Markatu gorriz zuen agendetan azaroaren 19a. Izan ere, kontzertu sinfoniko batez gozatzeko aukera izango baitugu Oñatin bertan, eta ez dira oso ohikoak izaten halako programak Euskadiko herrietan, instrumentista asko eta instrumentu ezberdin asko eskatzen dituztelako, eta zailtasun tekniko handikoak izaten direlako.

Baina Ganbara Faktoriaren babesean sortutako Aequus Ensemble orkestrak erronkari heldu dio, eta musika erromantikoaren historiako hiru konpositore handienetakoena (*Ludwig van Beethoven*, *Franz Schubert* eta *Felix Mendelssohn*) sinfonia bana eskainiko digu, Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean.

Klasizismotik erromantizismorako trantsizioan benetako aitzindaria izan zen **Beethoven**, eta bere *Lehen Sinfonia do maiorrean Op. 21* iraultza baten hasiera markatu zuen obra da, aurrerago eskainiko zizkigun maisulanen preludea.

Schubert-en *Si Minorreko Sinfonia Osatugabea* austriar musikagilearen nortasun eta jenioaren erakusle da, amaitu gabe gelditu zen arren, eta nota bakoitzean sumatuko dugu emozioak adierazteko zuen trebetasuna.

Mendelssohn-en *Hebridak* obertura, paisaiak margotu eta hitzik gabeko istorioak kontatzeko musikak duen ahalmenaren adibide liluragarriak dira, eta bere harmonia eta 'crescendo' zirrargarriek Eskoziako kostaleko itsas labarretara eramango ditu entzuleak.

Hitz batean, XIX. mendeko musikarien berezko sentsazio eta emozioen munduan murgilaraziko gaituzten hiru bitxi entzuteko aukera bikaina izango dugu Oñatin bertan.

Aequus Ensemble soka-orkestra bezala sortu zen, baina emanaldi berezi honetarako perkusioa eta metal-, haize- nahiz egur-instrumentuak batuko zaizkio, programa sinfoniko eder hau eskaini ahal izateko. Kontzertua Mikel Goiaingeruaren parrokan izango da 19:00etan. Sarrerak (6€) www.oñati.eus webgunean eta Txokolateixan eskura daitezke.

Ganbara Faktoriaren baitan sortutako Aequus Ensemble orkestra osatu egingo da perkusioa eta metal-, haize- nahiz egur instrumentuekin, programa sinfonikoa eskaini ahal izateko.

Lehen Sinfonia Do Maiorrean Op. 21

BEETHOVEN



Benetako maisulana da, musika-paisaia liluragarriak sortzeko duen trebetasuna erakusten du. Lau mugimenduz osatuta dago. 'Adagio molto-Allegro con brio'-rekin hasten da, modu solemnean. Bigarren mugimenduak 'Andante cantabile con moto', melodia lasai batean biltzen gaitu. Hirugarrenak, 'Menuetto: Allegro molto e vivace', dantza alai batera gonbidatzen gaitu. Azkenik, laugarren mugimenduak, 'Adagio-Allegro molto e vivace', sinfonia borobiltzen du, itzulera indartsu batekin.

Si Minorreko Sinfonia Osatugabea

SCHUBERT



Obra berezia da, bi mugimendu dituen. Lehenengoa, 'Allegro moderato', sarrera misteriotsu batekin hasten da eta giro malenkoniatsu bat sortzen du. Bigarrenak, 'Andante con moto', emozio grinatsu eta kontenplatiboen munduan murgilaraziko gaitu. Bere musikaren bidez paleta emozional aberatsa adierazteko duen gaitasunaren erakusle da.

Hebridak, Op. 26

MENDELSSOHN



Mugimendu bakarra duen obra zirrargarria da. Eskoziako kostaldearen edertasunaren oroigarri bat. Musikak itsaslabar, olatu eta misteriozko mundu batera garamatza, naturaren handitasuna harrapatuz. Atal bakarra duen arren, soinu-bidaia ikaragarria da, Eskoziako Hebriden edertasunari eskainitako gorazarrea.



**Hilero kontzertu bat
eskainiko du Zubikoa
pilotalekuan**

Musika bandaren kontzertu denboraldia azaroaren 19an hasiko da

Nobelatan oinarritutako obra musikalak joko dituzten lehenengo kontzertuan

'NOBELA GUNEA' du izenburua musika bandak azaroaren 19an eskainiko duten kontzertuak, 2023/2024 denboraldiko lehenengoak, eta eleberriz egindako sei obra entzun ahal izango ditugu bertan: *Treasure Island*, *El hombre de la Mancha*, *The Lord of the Rings*, *The legend of Maracaibo*, *Nostradamus* eta *Moulin Rouge*. Musikaren bidez istorio bat kontatzen duten obra programatikoak dira. Aski ezagunak gehienak. "Ordubete inguruko kontzertu zirrarragarria izango da, filmetako musikaren tankera duen errepertorio batekin, perkusio indartsuekin...Kontzertu ahaztezina izango da", esan digu Aitor Biain zuzendariak.

BANDAKO KIDE BERRIAK

Berezitasun bat ere izango du kontzertu honek, izan ere hiru musikari gaztek estreinaldia egingo baitute musika bandarekin: Lier Esnaola (perkusioa), Julen Arrazola (klarinetea) eta Uxue Igartua (bonbardinoa). Kontzertua 13:00etan hasiko da eta, ohi bezala, dohainik izango da, baina sarrera eskuratu behar da Txokolateixan.

Ekainera bitartean hilean kontzertu bat eskainiko du musika bandak, gai ezberdinen inguruan: Zarzuela, dantza, zirkoa... Publiko desberdina, gaztea (etorkizuneko publikoa) erakartzea da musika bandaren helburuetako bat, eta ildo horretan, aurreko eragile ezberdinak gonbidatuko ditu emanaldietara: musika eskolako ikasleak, gimnasia erritmikako taldea, Potx eta Lotx pailazoak, Gabara abesbatzako bakarlariak... lazko sei kontzertuetatik bitan pilotalekuko aforua (670) bete egin zen, eta beste kontzertuetan 400 entzule bildu ziren, batzuek beste.



Musika Bandako eta udaleko ordezkariak kontzertu denboraldiaren aurkezpenean

DEIALDIA

Taldearen etorkizuna bermatzeko asmoz, proiektu ezberdinak ditu esku artean Musika Bandak, baina kontuan hartuz instrumentu batzuetan hutsuneak daudela, animatu egin nahi du garai batean musika ikasi eta, arrazoi bategatik edo bestegatik utzi egin zuen jendea instrumentuak ber-hartzera. Era berean, etxean instrumenturen bat alboratuta duten herritarrei musika bandari dohaintzan uzteko eskaria luzatu dute, bandan hasten ari diren gaztetxoendako oso baliagarriak izan daitezkeelako. ■

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40



Burrunda Faktoria

kultur elkarte sortu dute, musikan eta kulturaren eragiteko asmoz

Burrunda Faktoria kultur elkarte sortu dute hainbat herritarrek, musikaren alorrean eragiteko asmoz, bestelako kultur proposamenei atea itxi barik.

Taldea irekia da, eta animatu egin nahi dute jendea elkartearen edota antolatuko dituzten ekintzetan parte hartzera. "Jende eta ideia desberdinek aniztasuna sortzen dute, eta aniztasun horretatik, aurkeztu dugun urritik abendurako egitarauan askotariko musika estiloak daude", azaldu dute.

Burrunda Faktoriaren jarduna gidatuko duten oinarri edo balioei dagokienez, euskara eta emakumeen presentzia nabarmendu dituzte, eta ahalegin berezia egingo dute musika taldeei baldintza duinak eta tratu egokia bermatzeko, eta hauen inguruan lan egiten duten teknikari, diseinatzaile eta abarren lana behar bezala baloratua izan dadin.

Kontzertuez gain, bestelako kultur ekitaldiak antolatzeari ez diote atetik ixten. Hala, azaroaren 3rako Jon Urzelairen 'Su festak' liburuaren aurkezpena antolatu dute, eta laster plazaratuko duten fanzine bat ere ari dira prestatzen. Elkartearen finantzatu eta ekimen berriak antolatzen jarraitu ahal izateko, kamiseta, garagardo eta poltsak jarriko dituzte eskuragarri.

Kontzertuetarako bonuak ere jarriko dituzte eskuragarri, prezio ezberdinetan: soldatadunentzat eta soldatagabeentzat. Erosten duenak kontzertu guztietarako sarbidea izango du —kontzertu bat doan aterako zaio— eta, gainera, Burrunda garagardoa izango du opari. Burrunda Faktoriak sare sozialen bidez (*Facebook*, *Instagram* eta *Twitter*) emango du bere jardunaren berri.

DATOZEN EKITALDIAK

Joan den asteburuan izan ziren Burrunda Faktoriak antolatutako aurreneko bi kontzertuak (Sukena eta Bayou La Batre+Lee-Kore), eta hurrengo asteetarako beste lau ekitaldi iragarri dituzte: **Azaroaren 3an** (Jon Urzelairen 'Su festak. Euskal musika jaialdiak XXI. mendean' liburuaren aurkezpena egingo da; **azaroaren 18an** *Ramada Inn* eta *Arima* taldeen kontzertua; **azaroaren 26an** *Arima Soul*-en kontzertua; eta **abenduaren 16an** *Malammär* Bartzelonako taldearen kontzertua. Guztiak Antixena gaztetxean, 19:00etan.



Arnasaldiak, Iker Martinez eta Zaldi Herrenak-en disko berria kalean

Kalean da **Arnasaldiak**, Iker Martinezen laugarren diskoa, bigarrena Zaldi Herrenekin. Garate estudioan guztiz zuzenean grabatutako lana da, taldekide guztiak batera jotzen areto berean. "Taldearen soinua islatu nahi genuen diskoan, urteak pasa ahala garatzen joan garen soinua propioa. Ez genuen edizio eta postproduzio askorik nahi. Abestiak bere soiltasunean mantendu nahi genituen, gehiegi ekoiztu gabe. Eta guztiaren gainetik, esperientzia musikal bat izan nahi genuen denok batera" adierazi dute. Ohiko taldekideez gain, Oskar Arlanzaon (perkusioa), Ander Etxaniz (gitarra, ahotsa eta armonika), Ane Arruti (ahotsa) eta Iraia Aizpuruk (biolina) ere parte hartu dute diskoan.



Guztia gordetzea ezinezkoa da, Sukena taldearen aurreneko diskoa

Sukena taldeak bere aurreneko diskoa plazaratu du. 'Guztia gordetzea ezinezkoa da' du izenburua eta zazpi kanta biltzen ditu. Aker, Boga eta Eltzia tabernetan dago eskuragai eta *Instagram* bidez ere eska daiteke. Ilusio handiz egindako lana da. Jakin nahi nuke abestiarekin grabatutako bideoak ere ikusgai dago taldearen youtube-ko kanalean.

 ARRIZABALAGA Aroztegia	 PAKITA Altzariak
Berezao Ind. 10 Tel. 943 78 14 64	Sta. Marina, 6 Tel. 943 78 02 21
SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK	

KAROI

Debagoieneko Antzerki Jaialdiaren bigarren edizioa abian da

» Antzerki emanaldiez gain, **Ikusleen Klubak, tailerrak, mahai-inguruak eta talde amateurren topaketa** antolatu dituzte

» Antzerkia herritarrengana gerturatzea eta publiko parte-hartzaile eta kritikoa sustatzea da helburua



Hurrengo asteetan antzerkiak gozatzeko, antzerkigintzan trebatzeko, eta antzerkiak ikasteko eta gogoeta egiteko aukera egongo da Debagoiena eskualdean, DAP Antzerki Plataformak bigarren urtez antolatu duen KAROI Antzerki Jaialdiari esker. Antzerkia herritarrengana gerturatzea eta publiko parte-hartzailea eta kritikoa sustatzea da helburua, eta, asmo horrekin, ikusleen klubak, tailerrak, mahai-inguruak, antzerki emanaldiak, topaketak ... askotariko ekitaldiak antolatuu dituzte abenduaren 3ra bitartean.

IKUSLE KLUBAK

Aurtengo KAROI jaialdiko berritasun nagusietako bat 'Ikusle Klubak' dira. Literatur solasaldietan bezala, antzerki zaleei zuzendutako topaketa moduko bat da, eta egun horretan ikusiko duten antzezlanari buruzko xehetasun gehiago ezagutzeko aukera eskainiko du. EHAZErekin (Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte) elkarlanean antolatutako ekimena da hau, eta euskarazko ekoizpenak jendeari hurbiltzea da helburua. Azaroaren 17an Aretxabaletan (kultur etxean, 19:00) egingo da hurrengo Ikusle Kluba, 'Kanpora sartzen' antzezlanaren inguruan, eta abenduaren 1ean Oñatin (kultur etxean, 18:00), 'Bake lehorra' antzezlanari buruz. Izena emateko: dantzerkiplat@gmail.com

Formakuntza tailerrei dagokienez, Oñatiko Jabetze Eskolaren baitan antolatu den 'Argi eta soinu teknika'zaren

hastapena' ikastaroa abian da, eta martxan da, baita ere, Itsaso Pol zinegile oñatiarrak zuzentzen duen 'Kamera aurreko antzezpen hastapena' izeneko formazioa. Urriaren 29an izan zen aurreneko saioa, eta azaroaren 5ean osatuko da tailerra. Bestalde, azaroaren 12an Ikusleen klubak gidatzeko formakuntza saioa egingo da Elgetako Espaloian.

MAHAI-INGURUA ETA TOPAKETA

'Publiko berrien sorrera' izenburupean, mahai-inguru interesgarria egingo da Oñatin, azaroaren 14an (zine aretoan, 19:00). Gai mamitsua izango dute hizpide: Zergatik egoten dira hutsik askotan gure herrietako antzokiak? Zer egin daiteke herritarrek erakartzeko? Zer ondorio ditu gizartean antzerkiak tokirik ez izateak?. Matxalen de Pedro, Xabier Paya eta Amaia Gabilondo izango dira hizlariak.

Azpinarratzeko modukoa da, baita ere, azaroaren 18an Oñatin (Eltzia) egingo den antzerki talde amateurren topaketa izango da. EHAZErekin batera antolatutako ekitaldia izango da, eta euskaraz aritzen diren talde amateur ezberdinek beraien lana ezagutzera emateko aukera izango dute, egun osoan zehar.

'Karoi' jaialdia borobiltzeko, abenduaren 1ean 'Bake lehorra' antzezlanaren eta honen inguruko Ikusle Kluba egongo dira Oñatin, eta abenduaren 3an 'Belarriprest' antzezlanaren eta Ikusle Kluba Antzuolako Torresoron.


FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Herriko txoko guztietara iritsi nahi duzu?

jarri zure iragarkia aldizkarian

publi@onati.eus



EGITARAU

AZAROAK 12

Tailerra.

'Ikusle Klubak gidatzeko formakuntza' Elgetan

AZAROAK 14

Mahai-ingurua.

'Antzerkiko publiko berrien sorrera' Oñatiko zine aretoan, 19:00

AZAROAK 17

Ikusle Kluba. 'Kanpora sartzen' antzezlaren inguruan. Aretxabaletan.

AZAROAK 18

Topaketa. Antzerki talde amateurren topaketa' Oñatiko Eltzian, egun osoan

ABENDUAK 1

Ikusle Kluba. 'Bake lehorra' antzezlaren inguruan. Oñatiko kultur etxean, 18:00

ABENDUAK 3

Ikusle Kluba. 'Belarriprest' antzezlaren inguruan. Antzuolan.



Egitaraua



Pake Leku elkarteko Ikusi-Makusi taldeko kideak

Vivir en Villa Titiritaina antzezlana taularatuko du Ikusi-Makusi taldeak

Pake-Lekuko Ikusi-Makusi taldeak *Vivir en Villa Titiritaina* antzezlana taularatuko du **azaroaren 3an** (Santa Ana, 17:30) Pake-Lekuko bazkideentzat (dohainik), eta **azaroaren 11n** (Santa Ana, 19:00) herritar guztientzat (5€). Asun Arzuagak idatzitako lana da, sei pentsiodunen gorabeherak kontatzen dituen komedia estiloko antzezlana. Bost emakumek eta gizon batek 'kasualitatez' bidaia batean ezagutzen dute elkar. Bazkal orduan, hitz egiten duten bitartean, bakoitzak bere egoera pertsonala azalduko du eta erabakitzen dute 'zaharren egoitza batean apartakuta' gelditzea baino aproposagoa dela etxe bat partekatzea. Elkarbitzita, pertsonen arteko harremanak, sentimenduak... umore eta alaitasun ikutz ziprztindurik.

Aspanogi elkartearen alde abestuko du Ganbara Faktoriak

AZAROAK 25, AGUSTINOEN ELIZA, 20:00

Artea eta kulturaren bidez mundua eraldatzea helburu duen *Fair Saturday* mugimenduarekin bat eginez, Ganbara Faktoriak ASPANOGI-ren (Gipuzkoako minbizia duten adingabeen familien elkarte) aldeko kontzertua eskainiko du azaroaren 25ean, Agustinoen elizan (20:00).

'MUSIKAREN KOLOREAK' izenburua ipini diote kontzertuari, eta musikak elkartasun balioekin eta lankidetzarekin duen konpromisoa islatu nahi du.

Ganbara Faktoriako talde guztiek parte hartuko dute: Ganbara Txiki, Hots eta Ganbara Abesbatza. Gainera, *Conbo* txiki baten (baxua, bateria eta pianoa) laguntza ere izango dute, eta pop estiloko euskal abesti ezagunak kantatuko dituzte (*Lau Teilatu, Arratsalde honetan, Ikimilikiliklik...*). Sarrerak (8€) www.oñati.eus webgunean.



O aulkiko sarrera (8€) erosteko aukera www.oñati.eus webgunean



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENOAK, LUR FLOTANTEAK, ARROIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.onati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



ANTZERKIA

AZAROAK 11 / 19:00

'VIVIR EN VILLA TITIRITAINA'

Pake Lekuko Ikusi-Makusi taldearen antzezlan, herritar guztiei irekia. Sarrera, 5€. [Santa Ana](#)

AZAROAK 18 / Egun osoan

TALDE AMATEURREN TOPAKETA

Karoi Antzerki Jaialdiaren baitan. [Eltzian](#)

BERTSOAK

AZAROAK 8 / 18:00

GAZTAINA JANA ETA BERTSO SAIO MUSIKATUA

Eltziak antolatuta, bertako Topa-Gunea ekimenaren baitan. Gaztaina-jana (3€) eta, ondoren (19:30) bertso saio musikatua [Eltziako topagunean](#)

EKITALDI BEREZIAK

AZAROAK 4 / 18:00

HITZALDIA ETA MIKOPOTEOA

'Perretxiko jangarriak, antzekoak diren toxikoak, eta ez bereiztearen ondorioak'. Hizlaria: Raul Fraile. Gandiaga Topagunean. Ondoren (19:00) Mikopoteoa Arantzazuko ostatueta. [Arantzazun](#)

HITZALDIA

AZAROAK 8 / 17:00

LEGE-SOZIOLOGIA INSTITUTUA

'Ikerkuntza Euskadin ikuspegi feministatik: memoria kolektiboa eta euskal emakumeak'. Hizlaria: Malena R. Maceira Informazioa eta hitzaldirako linka: info@onati.community. [Zoom bidez](#)

IKASTARO-TAILERRAK

AZAROAK 7-30

OINARRIZKO ARGAZKILARITZA

Ilunpetan argazki taldeak antolatuta, azaroaren 7tik 30era, astearte eta ostegunetan (19:00-20:00). Prezioa: 100€. Izen-ematea: 630491115. [Eltzian](#)

AZAROAK 19 eta 26

'XABIER EGAÑA KOLORETSUA'

6 eta 12 urte arteko haurrentzako arte-lantegia, Arantzazuko Gandiaga Topagunean (10:30-13:30). Prezioa: 5€. Izen-ematea: adiskideak@arantzazu.org / 688613840. [Gandiaga topagunean](#)

XV. TRIKITI JAIALDIA

AZAROAK 25, SANTA ANA, 17:00



Lizargarate Trikitizale Elkarteak antolatuta, azaroaren 25ean izango da Oñatiko XV. Trikiti Jaialdia, Santa Ana antzokian, 17:00etan. Oraindik zehaztu gabe dago partaideen zerrenda —hurrengo egunetan jakinaraziko dute sare sozialetan—, baina aurreratzeko moduan gaude azaroaren 6an jarriko dituztela salgai sarrerak (12€) Txokolateixan eta udalaren webgunean.

'OÑATZ, GORPUTZA ETA ARIMA'

ARGAZKI ERAKUSKETA, PARROKIKO KLAUSTROAN, ASTEBURUETAN (11:00-14:00) ABENDUAREN 3ra ARTE

Ilunpetan taldeko Asier Egaña argazkilaria eta Oñatz dantza taldearen arteko elkarlanaren emaitza da erakusketa. Dantza ezberdinetako mugimenduak eta jantziak islatu ditu Egañak 34 argazki ederretan. Parrokiako klastroan dago ikusgai, larunbat eta igandetan (11:00-14:00) abenduaren 3ra arte.



HITZALDIA

Zer ari da gertatzen Palestinan?

AZAROAK 7, SANTA ANA, 18:30

Palestinarraren iragana, oraina eta etorkizuna

Hizlaria: Gabirel Ezkurdia
Geopolitikako analista eta EHUko nazioarteko ikerlaria

IKUSKIZUNAK

AZAROAK 22 / 19:30

MAGIA IKUSKIZUNA

Iago magoaren ikuskizuna. Eltziak antolatuta, bertako Topa-Gunea ekimenaren baitan. [Eltziako topagunean](#)

KONTZERTUAK

AZAROAK 18 / 19:00

RAMADA INN + ARIMA

Burrunda Faktoriak antolatuta. Sarrera: 8€/3€ [Antixena gaztetxean](#)

AZAROAK 26 / 19:00

ARIMA SOUL

Burrunda Faktoriak antolatuta. Sarrera: 8€/3€ [Antixena gaztetxean](#)

LITERATURA

AZAROAK 3 / 18:30

LIBURU AURKEZPENA

Jon Urzelainen 'Su festak. Euskal musika jaialdiak XXI. mendean' liburuaren aurkezpena. [Antixena gaztetxean](#)

MAHAI-INGURUA

AZAROAK 14 / XX19:00

'ANTZERKIRAKO PUBLIKO BERRIEN SORRERA'

Hizlariak: Matxalen de Pedro, Xabire Paya eta Amaia Gabilondo. [Zine aretoan](#)

ZINEA

AZAROAK 4

LABURMETRAI RALLYA

Partaideak goizeko 8:00etan elkartuko dira Santa Ana aretoan, eta iluntzeko 21:30etan izango da emanaldia Santa Anan bertan. Streaming bidez ere jarraitu ahal izango da. Informazioa eta izen-ematea: <https://olrallya.wixsite.com/olrallya>.

POLTSIKORAKO POEMAK

HAURRENTZAKO POESIA
KONTAKETA



Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan 5-7 urteko hurrei zuzendutako poema kontaketa saioa egongo da azaroaren 29an, Haur liburutegian (18:00), Amaia Egidazu eta Saroa Bikandiren eskutik. Umeekin erritmoa, errima, hizkuntza eta ahozkotak lantzea da saioaren helburua, propio sortutako poema ilustratuen bidez. Gonbidapenak hilaren 20tik aurrera.

'HIZKI HAZKA' ARETOA
Galtzagorri elkarrekin elkarlanean, hurrei zuzendutako areto literarioa antolatu du udal liburutegiak. Azaroaren 21etik 27ra herriko lehen hezkuntzako ikasleei zuzendutako saio gidatuak egingo dituzte Haur liburutegian, alfabetoa oinarri hartuta eta berau osatzen duten hizkiei bizia emanez eta haurren sormen, irudimen eta sentipenei lekua eginez



Hileko gomendioa

Etxeko txikienek, ipuin honen bidez, Primi Erosarbe (Araotz, Oñati, 1907 - 1995) eta Maurizia Aldeiturriaga (Zeberio, 1904-1988) ezagutuko dituzte. Emakume aitzindariak izan ziren, gizonen pare aritu zirelako plazaz plaza pandero-jole bezala. Landa eremuko emakumeei eta ondare musikalaren transmisioari omenaldi erraldoia!

ZINEA



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (22:00), igandea (19:30 eta 22:00) eta astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Azaroak 2 - 6

ZINE KLUBA:
El sol del futuro
NAGUSIAK:
O corno
HAURRAK:
Rally Road Racer



Azaroak 9 - 13

ZINE KLUBA:
Mendi Film
NAGUSIAK:
Los asesinos de la luna
HAURRAK:
Bill Kwai eta museoaren erasoa



Azaroak 16 - 20

ZINE KLUBA:
Entre las higueras
NAGUSIAK:
La ermita
HAURRAK:
Trolls 3



Azaroak 23 - 27

ZINE KLUBA:
Monstruo
NAGUSIAK:
La contadora de películas
HAURRAK:
Doraemon: Nobitaren dinosauro berria



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16

AZAROAK 6, 7, 15, 16, 24, 25 eta 26.
ABENDUAK 4 eta 5.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22

AZAROKAK 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28.
ABENDUAK 7 eta 8.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58

AZAROAK 2, 10, 11, 12, 20, 21, 29 eta 30. ABENDUAK 6.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28

AZAROAK 1, 3, 4, 5, 13, 14, 22 eta 23.
ABENDUAK 1, 2 eta 3.



MERKATU TXIKIA

ORTU SAILA SALGAI Jaumendi azpiko lursailetan kokatuta dagoen ortu saila (200 m²) salgai. Prezioa negoziatu daiteke. Deitu: 943780526 / 943782559.

PARTIKULARRAK Lehen Hezkuntzako hurrei klase partikularrak emateko prest dagoen neska. Magisteritza ikasita, hezkuntza berezian espezializatua. Deitu: 600 348 713.

ETXEBIZITZA ikusgarria salgai Bakardadeko Ama kalean, 82m², kapritxora jarrita, bizitzera sartzeko, 298.000 euro. Deitu: 655720404.

ODOL ATERALDIA

AZAROAK 3 / 16:30-20:30 MU-ko Enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu: **943007884**

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



>> URRUSULAKO KONTUAK (II)

Gari kontuak eta gordetegixak

Edadeko auzotar batekin izandako alkarrizketan, hauxe kontau oskun gari kontuak aittatuta:

“Urte osorako etxerako lain gari hartzen giñuan eta batzutan gehitxuago be bai, baiña gerra ostian izan zittuan kontuak; entregau egin bihar izaten zuan, eta etxerako geldiketan zana, hau da, etxian bizi ziranen erabera, haxe bakarrik eruan bihar zuan errotara, ezin zuan eruan tokaitten zana baiño gehixago. Papel edo kartilla bat eukitten giñuan eta han ifintten xuan hainbeste kilo aldiko eta zenbat aldiz eruan zeikien deklarauta heukanaren erabera, eta gehixago ezin zuan eruan. Gaiñetikua entregau egin bihar izaten zuan. Errotak prezinttauta eta kontrolauta euki zitxuain. Gure aittak-eta ixoteko makiña txiki bat ekuain, pentsuetarako ebaltzen zana, eta gabaz ixoten euen. Harekin ixo-nahaskilla bat urteten euen.



Urrusula auzuaren ikuspegixa

Entregau bihar zan garixa kalkulaitten xuain baserri bakoitzeko eskritturatan agerketan ziran neurrixen erabera. Baiña horrek problemak sortu zittuan, eta orduko auzo-alkatiak, Barrenetxe Txikiko Pedrok eskatuta, Oñatiko alkatiak eta beste hiru edo lau bat gizon etorri zittuan Urrusulara, eta egin zuan billera bat. Kontua zuan guk deklarauta geukan terreno darian ezin izaten zala erein laborerik, soro goixenetan eta baztarretan zati dezentiak geldiketan zittuan erein barik, lurra mehetuta eguelako, etab., eta billera horretan Oñatiko alkatiak eta auzotarren artian diskusiño gogorra egon zan: Pedro, auzo-alkatia, alde batetik, eta Oñatikuaren artian, bestetik. Hori gure aittak askotan esaten xuan:

- *Guk deklarauta dakogun terrenotako soruak neurri hori eztatoki* (Pedrok, auzo-alkatiak)
- *Ba, zuek ifiñittakuak dira* (Oñatiko alkatiak) (Horren erabera neurketan xuain)
- *Eztagoz labrauta horreik, ezin leike labrau dana* (Pedro, auzo-alkatia, aurrekaldera fanda, gogor erantzun ei txan Oñatiko alkatiari)

Danok bilddurrez, orduan etxaguan berba egitterik eta... Orduan etxaguan berba egitterik eta, obedeziu egin bihar zuan, eta aurrekaldera fan eta frente egittia ...”

Bestetik, etxe inguruan edo etxe barruan, garixa-eta gordeteko izaten ziran gordetegixak aittatuta, hauxe esan eben:

“Bai, geurian kamaran, sapaixaren onduan, xaguan beste kamaratxo bat aterik ez eukana, eta sapaittik bueltan sartzen zuan jenerua edo gorde biharrekuok, eskillara bat ifiñi eta sapaixaren ondora igota. Txarrixa be hiltten giñuan, baiña bi ezin zittuan hil; bat egunez hiltten giñuan, baiña bigarrena gabaz eta isilik, eta nunbaitten ezkutau bihar izaten zuan, bistatik kendu, badaezpada be. Orduan, isilik! Orduko pasadizuak nik batzuk xakixat, baiña orduan gerra ondoren zer pasau zan hor ... Bilddurra! Iñork barbarik be ez! Arabatik be ezin zuan garirik ekarri eta estraperluan eta gabaz ibilli zittuan auzotar batzuk, baiña, halako baten, harrapo zitxuain guarda zibillak eta kendu xostiain ekarrein dana, eta irabazittako danori azkenian hutsian.”



Txanda Elkarte

txanda

10 arrazoi txandako partaide izateko:

1. Alkarlanian lan egitten dogulako; alkarrekin jardunaz, alkarrei lagunduaz.
2. Interesekuak eta mesedegarririk izan leikien informaziñuak eta notiziak konpartitzen dittugulako.
3. Ikuspegi zabaleko eta esperientzia haundiko taldea garielako.
4. Herrixaren dinamikan parte hartzen dogulako, bezeruakin konektaitteko kanpaiñak aurrera eruanaz.
5. Merkatarixai laguntza eta babesa emuten dostegulako, guztion ongizatia pultzaketako.
6. Abantaillak dittugulako zenbait zerbitzu kontrataitaterunzkuan (aseguruak, mezularitza...)
7. Gure helburu profesionalak lortzen lagunduko doskuein formakuntza, baliabide eta tresnak eskuraketako samurtasunak dittugulako.
8. Inspiraitteko eta motibaitteko asmuaz bidaiak antolaketan dittugulako.
9. Gure lanbidiarekin konprometiuta gagozelako.
10. Baiña, guztiaren gaiñetik, gure herrixa maitte dogulako.

Aizu, animaitten zara?

10 arrazoi. Asmo bakarra: Oñati ezebezia ez geraketia.

Harremanetarako: txanda.oinati@hotmail.com

Oñatin erosiz, herria biz!



OÑATI
dabilen herria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO BAILA

Nik nahi dut

 **IMQ**
Zaintzen zaitugu

*mediku-arreta
arina eta
paperik gabea
Oñatin*

Kontratatu orain zure IMQ osasun aseguru

Itzuliko dizkizugu gehienez

250€¹

+ Gabealdi orokorrik gabe²



 **COINBROKER**
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

C/ Arantzazuko Ama, 9
20560 Oñati-Gipuzkoa

 943 089006
 [coinbroker.eus](https://www.coinbroker.eus)
 oinati@coinbroker.eus

(1)Promozioak bezero berri partikularrentzat soilik balio du, IMQ Urrea modalitatean, 2023/09/01etik 2023/12/31ra bitartean kontratatuz gero (2024/01/01 gehieneko efektu-data) Kontsultatu promozioaren oinarri osoak. (2) Salbuespenak: amatasunagatiko ospitaleratzea (erditzea/zesarea), kirurgia robotikoa ginekologian, urologian eta kirurgia orokorrean eta laguntza bidezko ugalketan. Ikus aseguruaren kontratazioko baldintzak eta baldintza orokorrak. RPS122/20